

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko Aldizkaria-- dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 32. zenbakia. 93ko martxoa.

Kilometroak 93 Ordizian



☞ ORDIZIAN OSPATUKO DEN KILOMETROAK 93-RI BURUZ, ANTTON AMUNDARAIN EKITALDIKO KOORDINADORE NAGUSIA ETA MANU OLANO JAKINTZAKO ZUZENDARIAREKIN.

☞ ERREPORTAIK: OLABERRIAN XIXAREEN XIMAURRAREKIN EGITEN DUTEN HUMUSA BITXIA. GERRATIK IHESI BOSNIATIK ORDIZIARA ETORRI DIRENAK. GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA EUSKARAREN ALDE BURUTZEN ARI DEN EKINTZAK.

☞ INAGURATU BERRI DUTEN OLABERRIA HIPERMERKATUKO ZUZENDARI DEN PATXI ANDONEGI ETA BERE KARRERAREN AMAIERAN ZIKLOKROSEAN GARAIPENAK LORTU DITUEN JOKIN MUJIKAREKIN ELKARRIZKETA MAMITSUAK.

☞ GOIERRITARRAK MUNDUAN, GOIERRITARRON LIBURUTEGIA, GASTRONOMIA, OHIZKO HAINBAT SAIL ETA GEHIAGO.

Mundu oso bat euskaraz GOIERRIN Iragarri, "anuntziatu", GOIERRITARRA-n

⇒Zabalkunderik handiena:

Euskaraz nahiz erdaraz, Goierri gehien zabaltzen den aldizkaria dugu **GOIERRITARRA** hilabetekaria. Zure publizitatea 3.000 txokotara iritsiko da.

⇒Irakurlegorik onena:

Kritikaren esanetara eta jendearen arauera aldizkari on, egoki eta txukuna da eta 2.500 harpidedunek eskatu dute dagoeneko (3.000 hartzaile izango ditugu berehala). Debalde bidaltzen zaio nahi duen guztiari korreoaz.

2.800 ale zenbakiko oraingoaz, laster 3.000: etxe, ikastetxe, mediku-etxe, liburutegi, liburudenda, taberna, kiosko, denda, lantegi, elkarte eta partikularrei banatzen zaie doan. 9.000 irakurle inguru.

⇒Hona perfila:

Kultur maila on bat duen irakurlea, 20-40 urte bitartekoa interesatzen da gehienbat, euskaltzalea. Baina gaztetxoago eta zahartxegoei ere zabaltzen zaizkio lehioak. Familia osoarentzako aldizkari prestijiosua duzu hau.

⇒Etorkizuna idazten ari gara:

Aldaketa garaia dugu hau. Etorkizuna euskaraz dator. Etzazula trena gal!

FOTOKONPOSAKETA ETA MAKETAZIOA: GOIERRITARRA
INPRIMAKETA: ANTZA. LASARTE.

GOIERRITARRA ARGITARATZEN DU: Goierritarrak Kultur Elkar-teak. Dorre Etxea 1. (Correos gainean). **124 posta kutxa. Ordizia**
☎ 889612

Publizitateari esker bizi gara: gure eskerrik beroena sponsorrei.

PUBLIZITATE TARIFAK

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Modulo bat tarjeta neurrikoa da.

Modulo bat	4.000 pzta.
2 modulo	8.000 pzta.
4 modulo	16.000 pzta.
Orri erdia	20.000 pzta.
Orri osoa	40.000 pzta.

5 edo 10 zenbakitan publizitatea egiten dutenentzat ondorengo deskontua daukagu:

Modulo bat	3.500 pzta.
2 modulo	7.000 pzta.
4 modulo	14.000 pzta.
Orri erdia	17.500 pzta.
orri osoa	35.000 pzta.

Publizitate kibraketa banketxe bidez egiten dugu.

Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita gurea.

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

32. zenbakia. 93.eko martxoa. Debaldeko alea. Tirada: 2.700 ale. 2.200 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, 1. pisua (Correos-gaitean). Tfn: 889612. Faxe: 889545. 124 posta kuxta, Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du.

Erredakzioa: Jon Arano ("Mikel Aramendi"), Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturriz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa

Amundarain, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Joxe Jabier Iraeta, Xabier Gartzia, Bittor Hidalgo, Mari Joxe Madariaga, Koldo zubeldia, Itsasondoko Kultur Taldea, Joxean Ormazabal eta Goiztiri AEK.

Azaleko argazkia: Gema M. Arrugaeta

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Lankide Aurrezkiari, Kuxta-ri, "Hiper Olaberria"ri, Ampori, Goierriko Udal Ordezkariei, "Antza"ri, "Egunkaria"ri eta


"Egin"i. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzenoi

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



*Irakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarrak*

Idea jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRARI



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tlf.

Ordiziako 124 Posta Kuxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

GOIERRITARRA zorionduz

Ordiziako lagunak:
Mila esker Santa Ageda kantak
igortzeagatik. Oso interesgarriak. Zorionak, eta hurrengo arte.
Bernardo Atxaga



1993 urt. postala

*Eskertzen da Bernardo !

Eskaera

Goierritarrak Kultur Elkartea:

GOIERRITARRA hilabetekariaren irakurlea naiz, eta irakurriak ditut aztertzen dituzuen txoko guztiak, Bertsolaritza barne. Hala ere, bertso zale ugari egongo denez (Aldizkariaren harpidedunak, neu barne), bertsolariei buruz, bai Goierrikoak eta bai Goierri-tik kanpokoak, zerbait gehiago jakitea gustatuko litzaiguke, benetan eskertuko nizuke hilabetekari bakoitzean bertsolari batekin elkarrizketa bat idatzi ahal izango bazenute, interesgarriak lirakeen galderei aurre eginaz, e.a. Nere eskaerari arreta jarriko diezuelakoan, eskerrikasko.

Alaitz Sarasola (Ordizia)

* Ahal dena egingo dugu, Alaitz (Erredakzioak)

Telefonikako aurkitegi berriak

Banatu berri ditu Telefonikak aur-tengo aurkitegiak eta aipagarria da lehen banan banako probintziakoak baziren ere, orain "Pais Vasco-Euskalherria" dutela izenburutzat. Hauek hala, hasi nintzen atzo Arbizuko lagun baten telefono bila eta hara non ikusten dudan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abonatuak bertan badaude ere, ez Nafarroa eta ez Iparraldekorik ez dela bertan azaltzen.

Nola kasu bakarra ez den eta garbi dagoen zenbaiten asmoa, Euskal Herria "Comunidad Autonoma Vascongada" delakoarekin identifikatzeko, azti ibili beharra dugu honelakorik ez ametitzeko. Eta hori guztion lana bada ere, dei egin nahi nieke nafar politikari abertzaleei, Zabaleta, Aoiz, Garaikoe-txea, Urbiola etabarri, Euskal Herriaren kontra "de facto" burutzen den zatiketa honen aurka borroka daitezen

J.J.Iraeta (Zaldibia)

FOTOKONPOSAKETA

ANtza

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN AURRERA GOAZ

Lana

❑ Fotokonposaketa lanak egiten ditugu GOIERRITARRAn, kartelak, inprimakiak, eta horrelako mota guztiatarako lanak. Inprimategirako lanak ere jasotzen ditugu. Dei 889612ra.

❑ Asteburuetan lan egiteko prest dagoen 18 urteko mutila naiz tabernako esperientzia badut. 888672era dei.

❑ Emakume bat pronto etxekolana eta umezaintza egiteko. 888335 tfnoa.

❑ Mutil batek edozein lan egingo luke. Dei 884109ra.

❑ Ezkondutako gizona (27 urte) primerako kamioi karnetarekin, motozerra, fenwicka eta traktorea ibiltzen badakiena, kamioi, biltegi, eraikuntza eta basolanetan ohitua edozein lanetarako prest. 160019 tfnora dei.

Salerosketak

❑ Kamioia salgai (NA-6177-V), ezin egoera hobeagoan. Erabaki beharreko salneurria. Dei Ordiziako 161235 tfnora.

❑ Eskusoinua salgai, 120 baju, Zerozette marka. 884009.

❑ Emaztegai jantzi berria salgai. Dei 885682ra eta prezioa jarriko diogu.

❑ Renault 5 (SS-AK) salgai. 21.000 km. 885682 tel.

Etxebizitzak

❑ Pisua nahi dugu alokairuan Beasainen. 651035ra dei.

❑ Pisu eraberritua salgai Beasainen; eguzkitsua eta oso salneurri interesantea. 887783.

❑ Ordiziako "Poligonoan" etxe jantzia salgai, berogailu-sistema partikularraz. Egoera onean dago, aukerakoa: 884032.

Agurrak:

Jan bai jan
ase bai ase
guk bai behintzat
zuk bai noski
zerbait gehiago badezute...!
Arkakusoak

8. KORRIKA HILE BUKAERAN GOIZTIRI AEK-REN ESKUTIK



8. Korrika ekitaldia gure eskualdean izango dugula eta, Goierriko Goiztiri Aek Euskaltegiak bertako euskaltzale, elkarte, alderdi, ikastetxe, udal eta mugimendu herritar guztiekin batera aritu da horren antolaketa-rako.

"Maite dugu euskararen herria"

"Martxoak 26tik apirilak 4 bitartean 8. Korrika Iruñean hasi eta Bilbon bukatuko da. Korrika, euskara gure hizkuntzaren aldeko erakustaldi eta ekimen handia da. Euskara berreskuratzeko nahia eta gure hizkuntzarekiko atxekimendua adierazten dugu bertan.

Hau gainera elkartasunez, modu alai, partehartzaile eta original batez egiten dugu.

Korrika ez da laisterketa soila, honen inguruan hamaika kultur eta kirol ekitaldi antolatzen baita. Korrikan, beraz, modu askoz har daiteke parte eta ideia guztiek badute tokia, ondorioa adiskidetasunez gozatzen den lan eta antolamendua delarik. Bestaldetik euskarak hain beharrezkoak dituen laguntzak eskuratzen ditu eta AEK-k egunez egun, helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko erabiltzen ditu. AEK, Korrika bezala, herriko jendearen konpromezua eta lana besterik ez da, ez gehiago ez gutxiago.

Korrika 8ak besteek bezala mezu bat zabaldu nahi du Euskal Herrian barna eta zuei idazki honen bidez azaldu nahiko genizuke zuena ere egin dezazuen. Le-loak, karteletan e.a. ikusiko duzun bezala, hiru pausuetako bidea egingo du: "Denok maite dugu gure herria", "Denok maite dugu gure herria euskaraz", "Denok euskaraz". Zer esan nahi da honekin? Euskara lur honetan betidanik egon da. Gure nortasuna mantendu nahi dugu eta honek gure konpromezu aktiboa eskatzen du euskara berreskura dezagun. Denok etorkizun hurbil batean, bakoitzak münduari buruz, bizitzari buruz, ditugun ikuspegi ezberdinak gordeta gure hizkuntzarekin bat egin dezagun, euskaraz".

BERTSO JAIALDIA ORDIZIAN

"Korrika" ekitaldien artean, martxoak 27, gaueko 10,30etan, Herri Antzokian: Maia, Iturriaga, Euskitze, Lizaso, Egaña eta Murua bertsolarien saioa. Bertso-jartzaile, Goierriko Bertso Eskola. Antolatzaile, Goierriko Goiztiri-AEK. Laguntzaile, Segura Irratia eta GOIERRITARRA Aldizkaria.

SUKALDARITZA IKASTAROA LEGORRETAN

Martxoaren 2tik apirilaren 29ra izango da eta astearte eta ostegunetan ospatuko da arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara Bilkoin elkartearen. Ikastaro hau hobekuntzazkoa izango da.

Egutegiak

* **Legorretako zine-emanaldiak:** Martxoak 7-8: "Dos duros sobre ruedas"; 14-15: "La ciudad de la alegría"; 21-22: "La fuerza de la ilusion"; 28-29: "El ultimo mohicano".

* **Ordiziako Mendizaleak:** Martxoak 7: Lareo-Enirio-Oidui. 14: Oñati-Aloña-Udana. 21: Etxegarate-Hirumugata-Ordizia. 28: Udana-Otzaurte.

* **Pausogaizto Goierriko Mendizaleak:** Martxoan (Fetxa zehaztekoan), elurrik balego, neguko igoera, elur kanalean modalitatean Aizkorrin.

Ordizia/Beasaingo goardiako farmaziak: Martxoak 3: Urbizu; 4: Atorrasagasti; 5-6-7: Azpilikueta; 8: Jauregi; 9: Larnaga; 10: Cuesta; 11: Arriola; 12: Urbizu; 13-14: Jauregi; 15: Atorrasagasti; 16: Azpilikueta; 17: Jauregi; 18: Larnaga; 19-20-21: Cuesta; 22: Arriola; 23: Urbizu; 24: Atorrasagasti; 25: Azpilikueta; 26: Jauregi; 27-28-29: Larnaga; 30: Cuesta; 31: Urbizu.


Besteek esana



CAFeko zuzendariarenak

"Oraindik 92ko datuak ofizialki itxi gabe ditugu, baina iazko salmentak 30.000 milioi inguruan ibiliko dira (91n baino %38 gehiago) eta irabaziak 1.500 milioi ingurukoak izango dira. 80ko hamarkadan 4.000 milioi galdu genituen, eta orain dela bi urte sartu ginen berriro irabazietan. Urte bukaeran 80.000tik hurbil zegoen gure eskabide zerrenda, eta 93ari nolabaiteko lasaitasunez egingo diogu aurre. Merkatu berriak zabaltzen ahaleginduko gara". (...) (*"Enpresa txiki asko dago Goierri CAFi begira. Horientzako aholkuren bat?"*, galderari): "Urtero 15.000 milioi pezetako erosketak egiten ditugu, eta zifra horietan enpresa askorentzako aukerak daude. Gure merkatuek eta gure bezeroek gero eta exigenteagoak dira, eta gure hornitzaileek maila guztietan hobekuntza ahalegin bat egin beharko dute. Bada baldintza oinarritzko bat nahitaezkoa dena: Europar homologatzeko kalitate estandarretara iristea.

Andres Arizkorreta, "Argia", 1.418. zka.



"Ai Geala" Beasainen

Zenbait herritarren ekimenez, euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea helburu duen Ai Geala elkarteak eratu da Beasainen. (...) Euskara talde hau orain finkatu bada ere, aspalditxotik ibili dira 15enbat lagun herrian euskararen erabilera kaskarrak kezkatuta era honetako talde baten premia eta bideragarritasuna aztertzen. Iragan maiatzean hasi zituzten lehenengo bilerak eta Beasainen euskarak bizi duen egoera aztertzea izan zuten lehenengo lana. (...) Hortik abiatuta, beste herri batzuetan sortutako euskara taldeek izandako esperientzia ezagutzea izan zen talde eragileak hartutako bigarren lana. (...) Herritarren aurrean aurkeztu zuten esan bezala lan horren emaitza. Aipagarria da uste baino harrera hobea izan duela beasaindarren artean, eta dagoeneko 70 bazkide inguru dituela

Ai Geala elkarteak. Bazkide egindako gehienek gainera, batzarrean erabakitako urteko mila pezetako kuota ordaintzeko borondatea erakustez gain, elkarteak izango dituen batzordeetan lan egiteko gogoia ere azaldu zuten. Pentsakera eta irizpide desberdinak bazter utziz, ahalik eta beasaindar gehien euskararen alorrean lan egiteko biltzea da Ai Geala-ren nahia. Bazkideetza kanpaina hasi du horretarako orain. Aipagarria da Andoni Sarriegi, Udaleko Euskara Zerbitzuko ardura-duna izan dela ekimenaren bultzatzaile nagusia.

Idurre Eskisabel, "Egunkaria", 93-II-3.

Lazkao Txiki, eri

"Zer moduz ote da Joxe Miel? da hemen gure artean uneoro eta hitzetik hortzera entzuten dena. Lazkao mendin jaio eta Zaldibian hazi esatea gehiegizkoa izango da, endemas ere berak 'hazi inon ez' esaten baldin badu. (...) Baina Zaldibia, oker handirik gabe, kontsidera daiteke Abalingo Pinpinaren 2. kabia. (...) Hurbiltasunak mitoa apurtu egiten du, baita, konpentsazio modura, bertatik bertara ezagutzeko eta artista eta pertsona elkarrekin nola uztartzen diren ikusteko aukera paregabea eskaini ere. Beraz, Joxe Miel dimentsio bikoitz eta osoan, bere bertute handi eta akatsekin, ezagutzeko parada izan dugu. Eta horrelaxe onartzen dugu, denean. Horrelaxe estimatzen du Zaldibia eta berriz ere lehenbaitlehen itzul dadin opa dio. Gure artean ikusi nahi genuke txiste kontari, bertsotan eta barrenean sentitzen duena ezeri begiratu gabe bizi jaulkitzen.

Rufino Iraola, "DV", 93-II-6.



Zure Argazki

D. Unanue, 1 • Tel 88 93 25 • 20240 ORDIZIA

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99

(Xabier Mendiguren beasaindarrak "Donostia Hiria" Antzerki Saria jaso berri duela eta Segura Irratiko Lierni Elorzarekin izandako elkarriketatik)

--Hainbeste sari... ohitzen ere arituko zara, ezta?


--Beno, bai. Honez gero badira 6 bat urte idatzi eta liburuak ateratzen ari naizela. Hasiberrian dextente ibili nintzen sariketetara aurkeztu eta batzuk irabazi ere bai. Gero utzia izan dut hori eta berriro hasi naiz obratxo batzuk aurkeztu eta, beno, zerbait atera dut. Kotxe bat erosteko asmotan naiz eta ez dit kalterik egingo.(...)

--Oraingoan "Donostia Hiria" Antzerki Saria izan da eskuratu duzuna "Garai(a) da Euskadi" obrarekin. Obran sartu baino lehen, nik izenburua esplikatzeko eskatuko nizu-ke.

--"Garai(a) da Euskadi parentesi artean dator. Beraz, irakurri liteke "Garai da Euskadi" eta "Garaia da Euskadi". Esanahi bikoiztasun bat dago hor, obran zer kontatzen denarekin lotuta dagoena. Obra kontatzen hasi behar dut-edo...?

--Dena ez kontatu, intriga utzizazu azkenetako, irakurri dezagun...

--Istoria benetako gertakizun historiko batean oinarritzen da. 1976an, bazen ETA barruan talde bat: "Los cabras". Horien buru zen Isidro Zumalde "El cabra" izeneko bat, oñatiarra, aspaldiontan Ertzantza barruan lan ilun-xamarretan omen dabilena. Pertsona



xelebre xamarra, beti armazalea izan, eta garai batean ETAn, baina gero arma hobeak Ertzantzan nonbait eta inguru horietan dabilena. Kontua da pertsona horri agindu ziotela, ETako zuzendaritzatik, joateko Erandiora han propaganda botatzera Aberri Egunean. Berri ez zitzaion gustatu ekintza hori, eta bera nola zen Zumalakarregi eta Santa Kruz apaizaren mireslea, gerrila nola egin nahi zuen E.H.ko mendiak aprobetxatuz, bada, egin zuen mendian zegoen herrixka bat "liberatu". Esan, "da! hau Euskal Herria da, bidali egin ditugu espainolak-eta". Herri hori Durangaldeko Garai herri txiki bat da, mendipuntan dagoena, hemen Abaltzisketa esango bagenu bezala. Imajina ezazu Txindokitik jeisten direla Larraitza batzuk, bidea moztu, ikurriña zabaldu (Frankismo garaia zen) eta propaganda botatzen dutela. Hori izan zen ekintza. Noski, benetan, jendea izututa etxean

sartu, ateak itxi eta, zer ote da? Ez zen askoz gehiago izan, berriz mendiz ihes egin baitzuten. Nik hori hartu dut oinarritzat, baina aitzaki hutsa izan da nik hartu dudana eta gero asmatu egin dut erabat pertsonaiak, elkarriketak, egoerak, pasadizoak, dena.

(...) Azken batean obraren muina zera da: esan, "gu euskaldunok inoiz ez gara geure buruaren jabe izan, beti besteren menpean egon gara. Zer izango ote litzateke gu geure buruaren jabe bagina?" Obran bertan, idazlea pertsonai bat bezala agertzen da eta esaten du, "a!, baina noizbait izan zen, egon zen herri bat 2 orduz Euskadi izan zena, ez Espainia eta ez Frantzia". Obran, hauek herrira iristen direnean, gizarte berri bat antolatu nahi dute. Eta nola antolatzen duten, zer gertatzen zaien, zein harreman dituzten herritarrekin, ze istilu sortzen diren... hori da obra. Umoretsua da batez ere, baina aldi berean nik uste dut baduela gure Herriaz, errealitateaz, geroaz gogoeta moduko bat.

(...)

--Aurrez idatzitakoak ("Pernando, bizirik hago oraindiko" esaterako) eskenatokian ikusitakoan, zer inpresio jasotzen duzu?

--Oso urrutitik bezala ikusten ditut. Esaten dut, "hau ez da ba nerea...". Baina, beno, egia esan ez da gutxi antzeztu ahal izatea, meritu guztiak ditu. Beharbada, seguru asko, antzeppen bakoitza diferentea izango litzateke. (...)

Irakur

EUSKALDUNON Egunkaria

OTEGI

**ERAIKUNTZA OROKORRAK
EDOZEIN ERAKUNTZA
EGITEKO PRESTATUA**

☎ 88 49 36

ITSASONDO

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

GOIERRITARRA-7

Ba al dakizu...?

⇒GIZARTEA

□Jakintza Ikastolak Ordiziako Arana kalean kokatu du Kilometroak 93a antolatzeke bere bulego nagusia, Dantza taldeak okupatzen zituen lokalatan. Lau bat gela egokitu dituzte antolakuntza lanetan aritzeko. Barrena ondoko etxean salduko dituzten urtean zehar materialak.

□Olaberriarri Olentzero kantari atera ziren gazteek bildutako ehundik gora mila pezeta SOS Balkanes erakundearen arkatara joan dira.

□Ordiziako Udala Oiangü baserriaren erabilera bultzatzen ari da eta inprimaki bat ere atera omen du turismo-promozio gisa, baserri hori aterpetxea ere badela adieraziz eta bertako onuren xehetasunen berri emanez.

□Zegamako Olaberria plazako obralanak erritmo bizian bide doaz.

□Jose Castillo, euskal sukaldaritzaren aitaontekoa, hil zen urtarilaren azkenaldera. Castillok Ordiziako Puertasoleko "Zubizarreta" hotela errejentatu zuen eta geroago zabalduko zuen Olaberriakoa. Gaur egungo "chef"en esanetan, tradiziozko sukaldaritza ongien eusten jakin izan zuen berak, errezeta ugari bildu zituen herririk herri. 80 urte zituen.

□Beasaingo Udaleko Gobernu Batzordeak ezezkoa eman zion Lizeoko gelak mataderira zeharraldatzeari. Herri Batasuna agertu zen bakarrik horren alde.

□Segurako Kale nagusian sekulako oztupoak sortzen dira Beasain-Zegamako pasabidean trafiko ugari dagoenetan. Bertako "DV"ko berri-emaileak sahiesbide bat proposatzen du.

□Segurako Aterpetxeko ume abandonatuak Donostiako zenbait pisutara eramane behar dituzte. Dirudienez, arazo linguistikoa ere topatu zituzten umeok, inguruko herrietan "D" eredu



Angel Sukia

Gizon apaina, leuna ere bai, jaiotzez zaldibiarra, Espainiako eskaileretan gora igo zen izarra. Kardinale ta Artzapezpiku, diplomatiko azkarra, fede-eustaila suharra, gordez beti molde zaharra (bir), baina bizitzak ez du barkatzen ta duzu bide bakarra, zeure adina dela medio karguak utzi beharra (bir).

ANDONI SARRIEGI

(euskara hutsa) besterik ez zuten eta umeok ez zeuden ohituta gure hizkuntzara.

□Azken urteetan "Iskiña" edo "Naparrene" bezala ezaguna zen Segurako taberna suntsitu egin dute, eraikuntza kondizio txarretan zegoenez.

□Legerretako kontrafrontisean errokodromo bat jarri da.

□GOIERRITARRA aldizkaria, gu geu, eztabaidagai, oraindik. Beasaingo Udal Batzarrean EuE, HB eta EAren mozio bat onartu zen, hiru taldeon botuez. Geure Proiektuari (GOIERRITARRAren Aldi Berria) irtenbide bat ematea proposatu zen, Beasaingo Udalaren prozesuaren gurditik tira egiteko prest dagoela. Noiz iritsiko dira akordio batera Goierriko Udalak?

□EA, HB eta EUEk Beasaingo Alkateta desautorizatu egin dute "Goierriko Herrien Ekintza" Fundazioan zuen ordezkarietatik.

□Beasaingo "Gogor" aldizkariaren 29. zkia.k "Hau ez da Marbella" izenburupean "Eskisabel"en solairua zela eta, eraikitzailea izan behar zuen Isidro Usabiagak, parte pribatua, ez bere betebeharrak ez eta epeak ez dituela bete salatzen du. "Irregularitasun mordo bat eta erreperkasio handiko txapuz baten

aurrean gaude", diote.

□Ataungo mendietan ahuntzak larreatzea debekatua dagoela gogorarazten du bertako Udalak.

□Ordiziako Udalak hautsak kendu dizkio udalerriko mugak zehazten dituen dokumentu bati. Beasain eta Ordizia arteko Laskaibarri dagokio eta 1889ko datakoa da. Bestalde, Ibarbia Etxea (Gazteluzar) izandakoaren solairua espropiatuko ote duen. EJko Ondarearen Zuzendaritzak agindutako expediente zigortzailea ez du ireki: azken urteotan herri horretan gertaturiko pastelaren ginda.

□Gabiriako frontoi ondoko lanei ekin die Udalak. Lan hauek bi alditan burutzea pentsatzen dute, beti ere duten eta izan dezaketen diruaren arabera.

□Ordiziako Suhiltzaileen Parkea zabaltzekotan dabilta. Udaberri honetan jarriko da martxan seguruenik, suhiltzaile boluntario zein profesionalen osaturik, eskualdearen zerbitzuan.

□Ezkio-Itsasoko "Beiti" baserriak bostehun urtetako historia badu gutxienez. Joxemiel Barandiaran zena izan zen horretaz jabetu zen lehenengoetarikoa. Igartubeiti baserria Mendiguren Bereziartuatarrena da eta Foru Aldundiak erosi du berriki, kultur balio handiak dituelako, bere antzinatasuna egurrezko egituraren eta banaketan antzeman daiteke. Museo moduko erabilerak publikoak emango zaio.

□Ataun San Gregorioko frontoi berriaren proiektua bukatuta dago. Proiektuak 89 milioi pezetako aurrekontua du. Frontoia egitea, oraintxe urtebete erabaki zuen bertako Udalbatzak, ahobatez.

□Ekaina bitartean, 14tik 30 urte bitarteko goierritar gazteen lan-munduko egoera eta akademikoa aztertuko dituen ikerketa bat egingo dute bi teknikok.

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN




⇒KULTURA

□Komeria berri bat antzeztu zen urtarilaren bukaeran Lazkaon: Bederen 1 taldearen "argirik piztu gabe", zeinean Xabier Agirre legorretarra eta Maribi Arrieta izan genituen jokalaria. Euskal kultur munduko jende ugari bertaratu zen. Aktoretza-lan ona, eta euskara aldetik ere ondo, baina ez dakigu aseturik irtengo ote zen jendea. Gu ez gehiegi.

□Arantxa Aseginolaza izan da izendatua Beasaingo Kultura Batzorde-buru, Mikel Zalduaren dimisioaren ostera.

□Ataundarra jaiotzez, Zumaian bizi da gaur egun Juanito Dorronsoro, irakasle gisa lan eginez. Bere hobby nagusia bertsogintza munduko azterketak dira. Bi ataletan banaturik "Bertsotan" bilduma ezaguna argitaratu zion Ikastolen Elkartek 80ko hamarkadan. Lan hura bukatu zuenetik, bertso doinuuen bilketa izan da Dorronsoro "entretenturik" izan duena: 2.000tik gora bertso doinuuen fitxak prestatu ditu. Azkenik ere amaitutzat eman duenean, ordean, lan hori argitara emateko zailtasunekin egin du topo eta Bertsolarien Elkartea saiatzen ari bada ere, ez dirudi erraza izango denik lan honi argitaratzailea aurkitzea.

□Jakina denez, datorren urteko Bertsolari Egunean gerraondoko bertso-jartzaileei egingo zaie omenaldia.



Oraindik omenduen sorta ofizialik osatu ezpada ere, Euskaltzaindiko "Xenpelar" sariko irabazle goierritar beterrano biren izenak dakartzagu gogora: Inozentzio Olea eta Jexux Lete "Ibai-Ertz". Hona gure kandidatuak.

□Sanjuanak urruti ikusten badira ere, prestaketa lanetan hasteko lehen bilerak egin dira Seguran. Lazkaoko festak, aurrenekotakoak hemen, lehenago izango dira eta ari direla hor ere.

□Joxemiel Barandiaran eskolako "Otsoa" irratia dozenertetik gora urte daramatza astero-astero herri guztirako irratsaioak eskaintzen. Azken urteotan irratsaiook ostiraleko 13etatik

14,15etara izan dira eta bertan adin desberdinetako neska mutilen ahotsa entzun daiteke, hasi ikasle gazteenetatik eta 14 urtekoerarte. Bai irratsaioak eta bai tresnek hobekuntzak izan dituzte. Honez gain Lazkaoko ikastolan ere herrirako irratia bat martxan jartzeko ote dabilzan hotsak dabilta.

□"Eguzki-berri" aldizkaria, hau ere Ataunen, orain 9-10 bat urte sortu zen. Azkeneko aleetan ordenagailuz egiten dute eta berrikuntzak nabarmenak dira. Aipatutako honez gain, "Nondik" aldizkari ezaguna, "Bizirik" eta "Oargi"-ren "Haurkide" ere badira edo izan dira bertan.

□Ordiziako Barrena Pintura tailerrak erakusketa bat paratu du bertan, otsailak 18tik martxoak 5 bitarte. Patxi Epelde tolosarra dute irakasle, eta artistak berriz, Mertxe Jauregi, Mari Karmen Mateo, Ana Mari Landaluze, Tere Arruabarrena, Mari Karmen Hernandez, Enkarni Bartolome eta Josune Zufiaurre.

□Martxo honen hasieran Beasain eta Ordiziako euskararen egoera aztertuko dituen eranskin bat ateratzekotan da "Euskaldunon Egunkaria". Zer irakurri izango du, gureaz gain, goierritar irakurleak.

□Ea hurrengoan berri hobeak dituen GOIERRITARRAK!



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96


GIPUZKOA

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Fotokopiak
- Ikastolako Materialak
- Koadernaketak
- Idazteko makinak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Gizabaloreen noria

Gizabaloreak jirarazten dituen zaldi-maldikoaren ardatza bere onetik aterata omen dago aspal-ditxotik eta nekeza omen da gaurko gizartean balore etikorik somatzerik. Garbiaren garbiz distiraz josirik bide zegoen gure aurrekoen zaldi-maldikoa krakaz eta tortikaz beterik bide dago jadanik eta, estetika faltaz gainera, etikatik ere herren bide dabil. Garai bateko zaldi-maldikoan jiraka zebiltzan zaldi jator, dotore eta etiko guzti haiek desitxuraturik daude orain. Diotenez, ilusiozko zaldi gorriak zuri bihurtu du bere burua. Diruzko zaldi beltza berde bilakatu eta itxaropenezkoa dugu. Zaldi langile nabarrak kolore iluna hartu eta ezkutatzen ari da paraje honetatik. Biziozko zaldi urdin arrotza indartzenagotzen ari da gugan, geroz eta kolore biziagoak hartuz. Areago, eta beti ere diotenez, badira kolorea zeharo galdu duten zaldiak eta, antza, ez da zaldi koloredun berririk sortzen. Kaosa nagusitzen ari da zaldi-maldikoan, kaosa nagusitzen ari denez! Barrakako nagusi zaharrei kaso egitera, nagusi gazte berriek antigoaleko zaldi-maldiko garbi itxurako hura baztertu eta ez diote noria berriari balore etiko berririk eransten jakin izan. Baina, bene-benetan, hori al da egia berdaderoa? Gazteak bakarrik ote dira noriaren akatsen errudunak? Egia al da aintzina-koak ez zuela inolako tatxarik?

Lana zuen behingo zaldi-maldikoak hainbat balore etikoren oinarri eta zutabe. Gaztetan eskolan ikasten saiatzen zenak lanpostu bat zuen ziurtaturik beti behialako norian. Ez zen lanik gabeko zaldirik ezagutzen eta lanak balore etiko ugari sortzen zituen: zintzotasuna, leialtasuna, gizabidea, giza-zaldi langilea izatea... Halakoxeak ziren gure aurrekoen gizabaloreak eta honelakoxea orduko giza-noria: lanak jirarazia, fedea eta erlijioa ardatzean zituela. Lau hamarkada urte, goiti-beheti, ditugu-

noi zabarkeriaren etsai eta zintzotasunaren maitale izaten erakutsi ziguten. Denbora galtzea izan zitekeen errurik latzena zen. Baina balio horiek, beren onean ala txarrean, ba al dute zentzurik noria berrian? Izan ere, nola ausar gaitzke lanak sorturiko balore etikoen edertasunaz mintzatzen noriaren giza-zaldi gazteei? Gazte ugari baitago alferria izan ez eta alferrik (eskolan e.a.) aritu behar izaten dena, noriak ez baitie etorkizunerako lanik eskaini nahi. Horiek horrela, nondik opa argiño etiko bat bederen noria berriaren iluntasunean? Baten faltan, hona bi argi izpi: 1., langabeziak jota dagoen noria berria den bezalakoxea onartu gabe, konformismo zurian ez erori; 2.a, gogoan hartu noria ez dela guztiz beltza eta fatalismo beltzaren hatzaparretatik al-dendu. Konformismo zein fatalismo guztiei muzin eginez gero, balore etiko berriak sortuko dira.

Noriatik betirako ezkutatzeke zorian dauden giza-zaldi zaharren aldeko apostua egin beharrean, noriara datozen giza-pottoka gazteen alde jokatu beharra dago hemen. Inork bai eta gazteak sor baitezake etika berria noria zaharrean. Bestalde, noria zaharrak ere bazuen tatxarik, itxuraz zetarik gabea izan eta balore etiko ederrez bakarrik horniturik zegoela iruditzen arren. Diruarekiko kulto antietikoan begitza daiteke hori beste ezertan baino nabarmenago. Gure aurrekoek denborak urrea balio zuela esan eta denbora ez baina dirua ez al zuten ba urrezkotzat hartzen hasi? Zenbat balore etiko ez ote da ttotoaren salan galdu noria zaharraren nagusi zaharrek urrezko zekorrra gurtzen hasi zirenetik? Nolatan hitzegin dezake dirua idolatratzen duenak balore etikoen galeraz?

Tolerantzia dugu modako jartzen ari omen zaigun balore etiko berria. Berez balore ona den arren, aho biko ezpata baten gisa erabili ohi da. Norberak eduki behar duen besteen iritziekiko

errespetoari dagokionez, ona da oso. Baina tolerantziaren izenean lagunhurkoa makurrarazi nahi izaten da askotan. Ez al da tolerantziaren bandera astintzen dabilen hainbat estatu edo alderdi politiko zeharo intolerante bihurtzen norbait beren itxurazko printzipio irmoei tximizka egiten hasten denean? Ez al du tolerantzia predikatzen duen askotxok inoren menpekotasuna bilatzen? Ez al du nahi profeta berri ugari beren badaezpadako profeziak ukiezinak izan daitezen?

Idealismoak agintzen omen zuen zaldi-maldiko zaharrean eta, aidanez, pragmatismoak noria berrian. Kasurako, sinestarazi digutenari jaramon eginez gero, 70. hamarkadako gazteek beren herri-noriaren alde, beren hizkuntzaren edota alderdi politikoaren faboraren aritzen bide ziren buru-belarri, idealismoa gainezka zutela, eta, aldiz, oraingo gazteek, idealismoa baztertu nonbait eta, pragmatismoak eraginda, autoa eta etxea edukitzeari begiratzen diete gehienbat. Ez da hori, ordea (nire ustez behintzat ez), izan litekeen egia-rik garbiena. Pentsatu behar baita lanfalta duen edozein noriatako zaldiak idealismo eta utopiei hertzeko baino behar gehiago duela aurrea bizi eta bero filosofatzeko, pragmatismoari atxekitzeko beharra alegia. Baina, bestalde, nork dakusa ilusioz beteriko giza-pottoka gazteen emana ahitu dela? Nik, behinik behin, hor ditut, begien aurrean, noriako talde ekologistetan zintzoki ari diren zaldi gazteak, hortxe euskal irrintziari jator eusten dietenak, bertan Bosniako edo nonahiko dohakabeei esku bat bota nahi dieten gazteak...

Baiki bai, zaldi gazteek badute ilusiorik eta balore etikorik. Lan-eske ari dira irrintzika, ordea, eta, lana eskaintzen ez diegun bitartean, noriako inor ez gara nor beren etika-moduak juzkatzeko.

Xabier Gartzia

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N

Bideo-kontsolak

Azkenaldian asko hitz egin da bideo-kontsolez. Egu-berrietan ume guztiak nahi zuten horietako bat. Alderdi baikorrak eta ezkorak aurkitzen dizkiete bideojokuei adituek. Entretenu eta dibertitu egiten dutela, arreta, memoria, gorputzaren koordinazioa eta erreflejuak lan-

tzen dituztela. Beste jolasak galerazten dituztela, adik-zioa sortu eta engantxatu egiten dutela, balore negati-boak ematen dituztela, hau da, biolentzia, individualis-moa, sexismoa eta munduaren ikuspegi manikeoa. De-netik izango da zerbait, polemika guztietan bezala.



Oscar Lopez, 11 urte, Mila-grosa ikastetxeko ikaslea.

Asko gustatzen zait bideo-kontso-lekin jolastea. Niregatik balitz egunero arituko nintzateke. Etxean, ordea, la-runbatetan eta igandetan bakarrik uz-ten didate. Askoz jota ordu pare bat. Nik "Nintendo" jokua daukat. Oso ona naiz. Inor ez dut molestatzeko gainera, nire gelan telebista daukat eta anaiak eta biok jolasten dugu. Joku hauek erosteko orduan, amarekin egiten dut tratua, erdibana edo erosten ditugu.



Iban Diez, OHOk 6. maila, Ordiziako Milagrosako ikas-lea.

Bideo jokutan jolastea asko gusta-tzen zait, baina etxean larunbatetan ba-karrik uzten didate eta orduan bi edo hiru ordu. Bideo joku hauekin oso erraz pasatzen dut denbora, dibertigarriak iruditzen zaizkidalako. Nik "Nasa" izeneko jokua dut baina gehien gusta-tzen zaidana "Arkamoid" deritzona da. Jokuok ama eta amonaren artean eros-ten dizkirate, beraz ez zaizkit oso ga-

restiak iruditzen. Bukatzeko esan behar dut jokuotan oso ona naizela.



Ainhoa Bonilla, OHOk ikas-lea, beasaindarra.

Nik "Sega Mega Drive" izeneko bi-deo-kontsola daukat. Larunbatero jo-lasten dut, askotan etxean zer egin ez dakit eta. Niretzako oso atsegina da jolasean aritzea, baina ez da hori baka-rrik egin behar; hala ere, denbora de-zente pasatzen dut jolasean. Era asko-tako bideo-kontsolak gustatzen zaiz-kit: abenturazkoak, lapurrak dituzte-nak, kotxe eta moto-lasterketadunak eta abar.



Marian Iturrioz, ordiziarra, OHOk irakaslea.

Dirua xahutzea da bideo-kontsolen kontu hau. Gaurko umeak dena eginda ematea nahi du, botoi bat sakatu eta listo. Bideo kontsola hauek ez dute umeen sormena garatzen uzten; horrek ez die onik egiten beren heziketari. Eta arriskugarriak dira, dependentzia sor dezaketelako. Gurasoen erantzunki-

zuna da beren seme-alabek bideo-kontsolekin zenbat jolastu behar duten erabakitzea. Irakurri egin beharko lu-kete gehiago, eta lagunekin jolasean aritu, baita gurasoekin ere. Gainera, umeek ez dute hain jostailu sofistika-turik behar dibertitzeko.

Dena den, askotan errazago izaten da aholkuak ematea, gero betetzeko baino. Gure gizartea kontsumora jarria dago, eta telebistatik etengabe jasotzen dute haurrek erosteko mezua. Zer ikusi hura erosi. Hau hezkuntza kontua da eta he-men denok dugu zeresana eta zeregina: bai guraso eta bai irakasleok, hezitzaileok alegia.



Yolanda Guerrero, etxekoandrea.

Garai batean mota eta tamainu guz-tietako panpiñen munduan bizi ginen eta, orain berriz, baloiak, trenak eta mekanoak beheraka doazela ikusi de-zakegu. Derrepentean etorkizuneko izen batekin bataiatutako eta bibrazioz beteriko aparatu bat sortu zaigu: bi-deo-kontsola. Beste elektrotresna bat dirudi. Bere berezitasuna: helduon baino esku eta buru arin eta azkarra-goentzat dira, umeentzat.

Kontsolarekin jolasten hasten nai-zenean, beti irabazi egiten dit honek. Eskatzen duen arreta jartzen ez dioda-lako dela diote nere semeek. Horrela izango da gainera! Ez, ez zait gusta-tzen. Zaratatxo errepetitibo bat duen makina honek gutxiagotua sentiaraz-ten naudelako ote da? Jostailu berri bat sortu da eta, orain ez gustatu arren, denborak esango du, biharko egunean nire iritzia beste bat izan daiteke.

Euskal kulturaren alde Lazkaon

Azterketa Soziolinguistikorako datu-bilketa zela alde batetik eta euskararen erabileraren alde aurrerapauso bat eman beharra ikusten zenez bestetik, Lazkaoko S. Prudentzio Eskola Publikoko eta S. Benito Ikastolako zuzendari eta irakasleekin bilera bat baino gehiago eginak gara. Azterketa Soziolinguistikoa eta bilera haietan garbi geratu zena zera izan zen: eskolorduz kanpo eta kalean, orokorrean, euskararen erabilpenari bultzada bat eman beharra zegoela. Ez dira alperrik ari ume guztiak "D" ereduak eskolatzen, gero ikastetxetik kanpo ez badute eta ez badugu (adi helduok!) erabiltzen... Beraz, eta hainbat buruhausteren ondoren, eskola eta ikastolako gurasoeekin lanean hasia erabaki genuen. Oraindik guraso asko dira, gazte askoak, euskaraz ez dakitenak. Dakitenen artean berriz, gutxi "alfabetatuak" edo euskaraz irakurri eta idazteko gai direnak. Ikasturte-hasieran Euskaltegiek eta Udalak aurrera eramandako "Transmisio-kanpainan" izena emandakoak, 25 lagun, lanean ari dira. Bertan parte hartzeko aukera zabala izan zen, baina ikasle gehiago lortu nahian beste saia-kera bat egiteak pena merezi zuela eta hortara animatu ginen.)

Herrian gai horretaz ardurarik izan dezaketen beste talde batzuegana ere jo genuen, proposamena egin genien eta azkenean 6 talde edo elkarteren artean kanpainari ekitea erabaki genuen: S. Benito, S. Prudentzio, Goiztiri-AEK, Maizpide Euskaltegi, Udaleko

Kultur Batzorde eta "Goiherriko Euskal Eskola"ren artean alegia. Gure susmoa zen jendeak euskararekiko jarrera negatiborik ez duela, baina bestela ere nahikoa lan baduen, ez dutela konpromezu handiegia eskatzen dien beste ezertan sartu nahi. Gainera uste genuen ugariak zirela erdaraz ere irakurri eta idazteko ohiturarik ez zutenak, eta hauek, normala den bezala, denen aurrean lotsagarri geratuko diren beldur direla.



Errealitate hori kontuan izanda ikastaro bereziak antolatzeari ekin genion: talde txikiak; 60 orduko ikastaroa (astean 3 egunez, 2 orduko saioak); ordu-tegia aukeran: goizez (9etatik 11etara), arratsaldean (2,30etatik 4,30etara) eta gauez (7,30etatik 9,30etara); urtarri-

lean hasi eta martxo bukaera alderarte; ordainketa 500 pezeta (prezio erabat sinbolikoa); eduki aldetik umeekin, etxean, kalean... erabiltzeko moduko gauza ximple eta praktikoak. Bagene-kien eta badakigu 60 ordutan inor ez dela euskaldunduko, inork ez duela euskara gehiegi landuko, baina klaseei eta hizkuntza berari beldurra kendu, oinarritzko gauzak ikasi eta esperien-tzia baikorra izatearen ondorioz aurre-ra ere ikasten jarraitzea animatzen ba-dira, ikasitakoa erabiltzen badute, se-me-alaben eskolako lanak gutxienez ulertzeko eta, zeinek daki?!, egiten la-guntzeko gai izaten badira, ez dugu lan txikia egin!

Beraz, abiapuntu eta helburu horie-kin abiatu eta iazko abenduan zabaldu genuen matrikula-epea. Zoragarria izan zen, espero ez genuen erantzuna: hainbat duda, galdera, telefonō-dei e.a.-en ondoren, 70 bat guraso matriku-la-paperak bete eta euskara ikasi edo landu nahi zutela esanez! Ama asko, baina aita-talde polita ere (maila hone-tan hauek mugiarazteak ematen dituen lanak...); batere ez dakitenak eta daki-tenak (euskaldun zaharrak nahiz lehendik ere euskara ikasten arituak baina aspaldian ikasketak utziak)... Ikaslego interesgarria, guztiak ere hala dira baina. Beraz, erabateko arrakastaz ekin berri diote 6 taldetan banatuta 67 gurasok, batzuk Goiztiri-AEKko Eus-kaltegian eta Maizpidekoan besteak. Martxo bukaeran edo apirilean balan-tzea egiteko moduan izango gara, an-tolatzaileok, irakasleak eta, zergatik

ARRANO

Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak

Kale Nagusia, 12

Tel. 88 74 47

BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA HALTZARIAK P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Telef. 88 05 43 BEASAIN

ez?, ikasle beraiek. Eman diezaiegun hitza guraso-ikasle hauei, beraiek dira eta protagonista!

Kanpaina hori antolatu eta arrakasta horrek ez gintuen itsutu, ez gintuen lasai eseri eta atsedean hartzera bultzatu, baizik eta posible bada su gehiagor lanean jarraitzeko indarra eman zigun. Eta lanean jarraitzeko oraingoan umeak eta gazteak aukeratu ditugu. Lazkaoko ume guztiak "D" ereduaren eskolatzen direla eta beraz denek euskaraz oso poliki dakitela pentsatzen duena ez dabil oker; baina poliki dakiten euskara hori kalean ere, ia beti erabiliko dutela pentsatzen duenak hartuko du susto ederra kalean gora eta kalean behera, auzoz auzo bueltatxo bat ematen badu... Eskolak eta Ikastolak bakarrik ez, etxeak, komunikabideek, kaleak eta eragin handia dute umeengan eta horixe da beraien jokararen isladatzen dena. Beraz, arazo horretaz kontziente izanik, hainbat herri-tan egiten den antzera, eskolorduz kanpo tailerrak antolatzeari ekin genion, eta horretan dihardugu oraintxe.

Tailerrak antolatzeko gure helburuak hauek izan dira: eskolorduz kanpo euskara erabiltzea; zaletasunak sortu eta garatzea; talde-giroa sortzea; herriko ume guztiak elkar ezagutzea eta elkarren arteko euskarazko komunikazio

sortzea eta lantzea (auzo desberdinetakoek, ikastetxe desberdinetakoek...); ondo pasatzea. Helburu horiek lortu ahal izateko, hasieran behintzat, umeekin lanean arituko denak langile profesionala eta espezialista izan beharrik ez duela ikusten genuen eta beraz, Ikastolako BBB eta UBiko gazteengana jo genuen. Hauek lehenengo momentutik lanerako oso prest agertu ziren eta beraiekin antolaketa-lanak burutzen ari gara 20 bat gazterekin. Gutxi gorabeherako programazio bat osatu genuen Gabonetako oporren aurretik eta matrikula-paperak banatu genituen: eskolaurreko eta OHoko hasiera eta erdi-zikloko 239 haur apuntatu dira.


Programazio zehatzagoa eta ekintza konkretuak aurkeztu eta prestatuz bilerak bat baino gehiago egin ditugu gazteekin eta horien arabera aurrekontu bat osatu ahal izan dugu. Aurrekontu hori mementu honetan Lazkaoko Udal-leko Kultur Batzordearen esku dago eta erantzunaren zain gaude. Udalak onartzen badu urtaril honetan bertan hasiko gara umeekin lanean. Onartzen ez badu berriz, beste nonbait atea jo eta bideratzen saiatu beharko dugu, ume eta gazte mailan horrelako mugimendu arrakastatsua sortzen hasi eta dena hankaz gora ezin daitekeela bota pentsatzen bait dugu. Beraz, gure aldetik,

ahal dugun guztia egin eta proiektua aurrera ateratzen saiatuko gara, lortu arte. Agian artikulua hau argitaratzen denean jada zerbaite martxan egongo da. Hala bedi!

Esan, eta orain arte aipatu ditugun bi proiektuak lotuz, gurasoen euskalduntzea eta "alfabetatzea" eta umeen tailerrak, nola funtzionatzen duten ikusi ondoren, tailerretako atea gurasoei ere zabaltzea nahi zaiela. Baina noski, guztiak euskara erabiltzea derri-gorra denez, guraso erdaldunei prestatetarako denbora bat utzi behar zaie. Bukatzeko, esan, zabal jokatu nahi dugula eta edonor laguntzeko prest balego, gustora hartuko dugula; eta dei berezia alde honetatik eskolorduz kanpo umeekin lana egiten duzuen elkarte eta taldeei. Eta lazkaotar guztioi batez ere, baina baita Goierriko beste herrietakoei ere (gure umeak batetik bestera bait dabilta kirola dela eta ez dela.

Lazkaoko ume guztiak badakite euskaraz. Beraz, beraiei euskaraz hitz egin eta hitz egin arazi. Gazte eta helduok erabil dezagun euskara beti eta izan gaitezen umeen eredu. Ekin eta jarrai!

Mari Joxe Madariaga (GEE K.E.-ko dinamizatzailea)



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

KOIOTE TABERNA

Taberna berria eta Giro berria

Zaldizurreta kalea — Tel. 16 07 23 — BEASAIN




IRYROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, C. B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GOIERRIKO EROSTUNEI BEGIRA SORTUA BATIPAT

"Olaberria Hipermerkatua", aukera berria

Ahoz-aho ibili dira "Hiper Olaberria"ren kontuak. Jakinmina sortu da hasiera batean eta horren oihartzunak oraindik ez dira itzali.

Berri zuzen eta zehatzak jakitearren jo dugu bertako zuzendaria den Patxi Andonegiren-gana.

GOIERRITARRA.- Inbertsio galanta Goierri eta Gipuzkoari begira...

PATXI ANDONEGI.- Hipermerkatuak badu nahikoa azalera Goierri-kanpoko kontsumitzaileak ere erakartzeko: Tolosa, Andoain, Hernani... Azken asteburuetan Lasarte eta Irundik ere izan dugu bixitaririk. Ez da zonalde haietako jendea gurerak erakartzea gure asmoa, Goierri osoa baizik, baina gure eskaintzak, aukera haundiak eta salneurriak direla eta, kanpotarrak badatoz, ongi etorri. Uste dut gure enpresa enblematikoa dela Goierri, hortik egin dugun Txindokiren erabilera, batipat goierritarrak gara. Gipuzkoar kapitalarekin osaturik datorren lehen hiperra gara (Mamut, Pryca, frantses kapitaldunak dira), gipuzkoarrak dira sozioak: bata haragi-alorrekoa, bestea elikagaiena eta hirugarrena fruitu eta barazkia; laugarrena JM Aristain.

G.- Zein eremu eta hesparru bete nahi duzue?

P.A.- Azalera haundi bat irekitzen denean alde guztietako jendea etortzen da, nolakoa den ikustera. Azkenean, erabakikorrak inguruotako jendeen joerak izango dira. Jakina, badakigu



Donostialdetik jendea etortzea ez dela oso normala; gure zonaldean egon nahi dugu, Goierri begira gaude eta Goierri ikus dezala bere zentru bezala honakoa. 50.000 biztanletik gora ditugu Urola-garaia kontatuz. Bergara eta Sakana-aldea, nahikoa gertu dauzkagu gainera. Ni Iruñeko zentru bateko zuzendaria izan naiz eta Altsasuko bezero asko genituen han. Altsasutik ger-

tuago dago Olaberria.

G.- "Lekurik" izango da Eroski eta zuentzat?

P.A.- Nik uste dut baietz. Biontzat lekua egon ezezik, biok ederki asko funtzionatuko dugulakoan nago. Guk gure zerbitzu, produktu kalitate eta horniketa politikari eutsiko diogu. Baina uste osoa daukat ederki asko elkar-bizi gaitzkeela bi zentruon esplotatzaileok.

G.- Espektatiba asko sortu dira: minigolfa, multizineak...

P.A.- Beno, merkatal-zentrua denekoaren %20aren erabilera gaude: Oyarbide (altzari eta elektrotresnak), Urrutia Intersport, Zaldiak kafetegia eta hegazti tenda bat daude bakarrik martxan oraindik, eta uste dugu hemendik 3 hilabetetara %100a ezpada %90a ihardunean egongo dela. Ez nik diodalako, Gipuzkoako zentru hobereena izango da hau. Ez kapazitate edo azalera, profesionalen eta marka/prestijio mailan baizik. Multizinerako harremanak badaude. Nik orain ezin dezaket esan segurtasunarekin, baina itxaropena badugu, multizineak sartuko direla. Hurrengo egunetan ikusi behar nola doazten negoziatioak.

Erosotasuna

Urtarrilak 19, goizeko 10etatik gaueko 10etara, jende multzo ikaragarri bat hurbildu zen Olaberriko Hipermerkatu zabaldu berrira. 5.000 m²ko solairua da guztira merkatal-zentruarena, batere zutaberik gabekoa eta egitura ikusgarrikoa. Orain dela urte eta piku, nork uste behar zuen Iurreko auzoan, N-1aren aldamenean honelako muntaia altxatu behar zenik? 92. en osoan lanean aritu eta urte-bukaerarako lan haundienak eginak zeuden. Merkatal-gunea kondiziotan jartzea aste gutxi batzuetako kontua izan zen.

Espainiako, eta bere antzerakoen, lurrazpiko aparkamendu haundiena

egin da: 18.000 m² estalirik, 3 metruko altuera ezohizkoa duela. Azerturik haundienetakoa da honakoa, ze nahiz eta inbertsioa gehiagotu, zerbitzu hobea eskaini ahal izango da. Bezeroak autoa utzi esku onetan eta bertatik bertara daude erosketa-lekutik. Erosotasuna da horren izena.

140 lan-postu berri sortu dira hipermerkatu berriaren zabaltzearekin. 250 enplegatuko omen dira guztira epe laburrera. Langile ikasiok badute zer saldu eta zer maneatu: eskaintzak 21.000 produktuen erreferentzi ditu. Produktu zuririk ez da apaletan. Dene-tik aurkitu daitezkeela lasai asko esan liteke.

Multizine e.a., uste dut hemendik hilabete batzutara eskeini ahal izango diogula Goierri aldeari iharduera espektatiba nahiko jatorra eta erakargarria, kontsumitzailea hemen gustora aurki dadin, etxean bezala.

"Goierrik berezko zentrua izango du hemen"



Merkatal interesez gain, kultur demanda bada eta hori asetzera ere bada-toz. Lehen saiakera bat egin dute (bikain ateratzen ari dena) hiperraren tendan kultur arloa sartzeko: disko eta liburuak. Kontsumitzaileak gustora hartu du, aukera haundia ikusten du eta prezio onak. Hori oinarritzkoa da eros-tunentzat, erosketak egin eta bertan aurkitzea kultur produktuak. Aldizkari espezialduak, argazkiak errebelatzeko zerbitzua, e.a. sartzekotan dira. Eros-leak eskertuko duen gauza.

"Gure indar guztiekin ari gara bu-rrukan errealitate bihur dadin guzti hori", diosku Andonegik. "Oso opti-mista naiz ni. Agian, irekialdia ez da oso interesgarria izan, epeagatik, izan den hilabete eta astebete ahulengatik, egungo errezesioagatik. Baina Goie-rrik berezko zentrua izango du he-men".

Mikel Aramendi

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polideportibo ondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN



HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJKA AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...
Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



"KILOMETROAK 93" EUSKARAREN JAIA URRIAK 3-AN ORDIZIAN

Antton Amundarain: "Egun bateko lorea ez baino urte osorako hazia"

Ohizkoa den bezala, aurten ere, urriaren lehen igandean "Kilometroak" jaia ospatuko da. Honako hontan, Ordiziako Jakintza

Ikastolaren txanda da eta dagoeneko jotake dabilta lanean, horrelako festa erraldoi bat antolatzea ez baita lan erraza.

Prestakuntza lanak ongi ote dihoazten jakin nahian, Antton Amundarainengana jo dugu. Arduradun bat behar zen eta bere eguneroko irakasle lanetik liberatu eta "Kilometroak 93"ko koordinatzaile nagusi izendatu dute Antton. 8 urtez Legorretako alkate izan ondoren, horrelako antolakuntza-lanak aski eza-gunak ditu Jakintza Ikastolako irakasle honek.

**GOIERRITA-
RRA.-** Halako jai haundia antolatzek izugarritzko lana suposatuko du...

ANTTON.- Bai, milaka pertsona behar dira, partaidetza izugarria; kontutan izan behar da Kilometroak ez dela Jakintza Ikastolaren edo Euskadiko Ikastolen jaia, beste konotazio bat badu: euskararen aldeko festa haundi bat da eta herri osoa partaide sentitzea nahi dugu. Lehenxeago edo geroxeago, partaidetza maila ezberdinak; azkenean, herriko zati

**"Euskararen bidetik
goazenon jai alai
eta bizia"**



haundi batek bere laguntza eskeiniko digu. Nola lortuko dugun? Plangintza bat egin dugu: ikastolako haurren gurasoei eta kultur elkarteei eskutitz bat bidali diegu, bilerak egin ditugu, egoe-

ra azalduz eta laguntza eske. Prentsaurrekoak egin dira eta garbi esan duguna da urriak 3, nahiz urruti ikusi, berehala datorrela. 11 batzorde eratu ditugu martxan jartzeko, bakoitza 10 kideez osaturik. Honek 110 pertsona oraintxe bertan lanean ari direla suposatzen du. Gutxi gora-behera 100 mila pertsona

etorriko dira Ordiziara, eta horrelako jendetza haundiak egun on bat igaro dezan, azpiegitura ongi antolatu behar da. Kalkuluak egin ditugu eta irailera-ko 600 bat lagun beharko ditugu lanean eta urriak 3an 2.500. Ordizia bezalako herri baten-tzako jendetza izugarria da.

G.- Zein batzorde daude dagoeneko martxan?

A.- Organigramaren gailurrean batzorde iraunkor bat dago, 10-12 pertsonakoa. Gero 3 batzorde garrantzitsu daude martxan. Lehenik trafiko eta zirkuitu batzordea dugu, zirkuitua diseinatu egin behar da eta ez da erraza horrenbeste bus eta autoentzako apar-

Karta bereziaz
gain,
bertako
babarrunak



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

eta ehizea,
bere
garaian
enkarguz

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuleketan espezialdua
- Enkarguak



Tfnoa: 88 83 31

ERGOIENA AUZOA. Tfnoa: 88 27 19 • ATAUN


kalekua bilatzea. Ekonomia mailan ere lanean hasiak dira. Salmenta batzordea oso garrantzitsua da: diseinua eta kalitatea duten produktuak (motxilak, kamixetak e.a.) kaleratu nahi ditugu. Osatu nahi ditugun beste 9 batzordeak hauek dira: Kultur alorrekoa, kultur hamabostaldia eta osatzen arituko direnak; publizitatekoa eta zerbitzuena ere aipagarriak dira; ikustaldiak, muntaia, zirkuituaren seinaleak, taberna, erosketak eta bazkari batzordeak.

G.- Zirkuitua erabakita dago?

A.- Aurrerapen gisa, esan, zirkuituaren zirriborro bat egina dagoela: Altamirako Ikastola abiagune, S. Juan auzora jo eta Ordiziara berriz sartuz, Barrenatik Oiangu aldera eta berriro buelta Altamirara. Xehetasun gehiago ez dago ematerik.

G.- Zeintzuk osatzen duzue Batzorde Iraunkorra eta erabakitzailea?

A.- Lehendakaria oraindik ez dugu izendatu eta oraingoz denon artean betetzen ditugu funtzioak. Administraria Jose Luis Sukia "Buse", Udal ordezkaria Jose Maria Barandiaran, koordinatzailearen funtzioak neuk betetzen ditut eta Manu Olano, ikastolako zuzendaria, batzorde iraunkorreko partaidea da baitaere. Azkenik, batzorde bakoitzeko koordinatzaileak, zubi-lana egingo dutenak, egongo dira hor. Denak ezpada ere, aipatuko ditut batzuk: trafikoan Mikel Miruri, ekonomian Pedro Irastorza, kulturean Mikel Oiartzabal... Elkarte zenbaiti proposatu die-



guna izan da, zergatik ez duten hartzen batzorde baten edo besteren ardura osoa. Aberatsagoa izan daiteke eta uste dut denak osatuko ditugula.

**Herri osoa lanean
jartzeko intentzioak
agertu dituzte**

G.- Zein helburu nagusi lortu nahi dituzue Kilometroak 93ekin?

A.- Beste ezertan hasi aurretik, erreflexio bat egin dugu. Lehenik eta behin esan behar da Jakintzak behar ekonomikoak dituela. Orain eraiki berri dugun eskolaurreko edifizioa oinarritzko baliabidez hornitu nahi dugu. Aurten

25 urte betetzen ditu Ikastolak eta lortu dugun heldutasunak ezinbesteko kide du kalitatea. Aurrez aurre dugu Erreformaren erronka eta beste ikastolak bezalaxe, proiektu bizi bat da: momentuero egiten dugun lana kuestionatzen dugula eta pausu berriak ematen ditugula. Aspaldidanik dihardugu giza baliabideak, hau da, irakasleak prestatzen eta oinarritzko baliabide tekniko eta materialez osatzen. Ikastolak seriotasunez eta ziurtasunez erantzun nahi dio erronka honi ere. Hori dena xoxetan traduzitzen da, diru-isuri bat dago hor. Dudarik gabe Kilometroak 93an jasoko dugun bultzada ekonomikoa arnasbide egokia bilakatuko zaio Jakintza Ikastolari.

Bestalde, euskaltzale sentitzen garen guztioi, adorezko bultzada eragin-kor bat eman nahi digu Kilometroak honek, euskararen normalkuntza bidean etengabe eta sutsuki aurrera jartzeko kemena eta borondatea eskainiz. Guk ez dugu nahi egun bateko lora eder bat besterik ez izatea, urte osorako hazi emankor bat izatea nahiko genuke. Euskararen erabilpenaren aldeko mezu baikorra aldarrikatu nahi dugu beste edozeren gainetik. Azkenik, festa ere bada Kilometroak 93. Festa alai eta bizia, ezinbesteko topagune askorentzat. Euskararen bidetik goazen guztion festa da. Hau da guk jai honi ikusten diogun zentzurik garrantzizkoena.

**Amaia Balerdi
J.A.**



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

BEROGAS

SUKALDEKO ALTZARIAK-ELEKTROGAILUAK

P. San Francisco, 10 - TOLOSA
Tfnoa: 65 33 07 - 73



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)

25. URTEA BETETZEN DU JAKINTZA IKASTOLAK: BERE DU 93.A

Manu Olano: "Ikastolaren guda hau ez dago galdua"

93.en honetan 25 urte betetzen ditu Ordiziako Jakintza Ikastolak. Urteotan bide bat urratu du, eta gaur gaurkoz, bere heldutasunera iritsi dela esan daiteke. Hala ere, Jakintzatarrek ez dute hobekuntzaren desafioa inoiz ahazten, etengabe jarraitzen dute beren proiektu guztiak egituratzen. Bertan urte askotan irakasle izandako eta egungo zuzendaria den Manu Olanorekin egon gara, zer esana bazuelakoan.

GOIERRITARRA.- Zein da Ordiziako Ikastolaren egoera eta zein bere helburu nagusienak?

MANU OLANO.- Gure Ikastolan eskolaurrea, OHO eta BUP (helduxea-goak) ere ikas daitezke, guztira 700 ikasle inguru izango ditugu (gehienak Ordiziakoak, Arama, Beasain eta Zaldibiako eskolume batzu salbu). Ezin da ukatu 25 urte hauetan ikaragarri sendotu garenik, hasiera hartako 2 geletatik 38tara iritsi gara. Heldutasunera iritsi gara; horrek ez du esan nahi gelditu behar garenik, eskola baten betiko errotoa da berritzea eta egokitzea; erronka horretan sarturik gaude burubelari, aurrera egiteko asmoarekin. Denbora berriok azpiegitura batzu esijitzen dute. Infrastruktura aldetik genuen hutsunik handiena eskolaurrearena zen, egoera txarrean, dagoeneko zaharturik zegoen. Buru-hauste asko izan ondoren, eraikuntza berria eraikitzen ari gara; beharbada atzeratuko da, baina ekainerako bukatua egongo da. Hortik aurrera behar den bezalako eskolaurre berri batekin kontatuko dugu, 12 gelakoa, arazoa bideraturik. Bere kostua 200 milioikoa da. Horren finantziaketa, beste erremediorik ezean, Ikastolak asumitu behar izan du. Hori ez da lojikoa. Orain arte Ikastolek Jaurlaritzarekin zeukaten konfluentzia-legearen akordioarekin, Eskola Publikoei ematen zaien besteko trataera eman behar zitzaigun. Behar errekonozitu hori Jaurlaritzak asumitu behar zuen. Hor, argi eta garbi, txantaje bat egiten digu Buesak: beraiek egindako eskola publikoan sartuko bagina, orduan bai. Bienbitartean ez. Lehengo komenioa indarrean dago eta haren arabera Jaurlaritzak estali behar zuen gastua. Baina ez dago borondaterik eta ez da bidezkoa. Izugarritzko zama da, ez;

Jakintzaz blai

Ikastola honetatik milaka lagun pasako ziren 25 urteotan. Euskal munduan ezagun diren makina bat hemen hezia da. Orain bertako hiru irakasle, ikasle izan ziren lehenik. Zuzendaritzaren esanetan, bertatik iragandakoez ez dute arazorik izan, ez eta Unibertsitatera iritsitakoan, alderantziz. Euskal Herri osoan barreiaturik dabilta jakintzatar ikasle ohi ugari, gizarteko goi-karguak eta guzti, denetik, betetzen. Prestijiozua izaten jarraitzen du Jakintzak.

dauzkagun 200 milioi. Eskolaurre zaharra saldua ere zulo galanta da. Kilometroak 93aren arrazoi nagusienetakoa arnasbidea hartzea da.

"Izugarritzko txantajea egin digu Buesak: bere legea onartuz gero laguntza; bestela ez. Ikastolak hiltzea da hori"

Bestalde, Erreformak 16 urte arteko irakaskuntza derrigorrezko jarriko du. 16 urte arterainoko ikasleak hemen izan nahiak, gutxieneko egokipenak eskatu dizkigu guri ere. San Inazio Ikastetxean 12 gela berri egin ditugu: 50 milioitik gorako inbertsioa. Bestalde, giza baliabideak sendotzea ere ga-

rrantzia handiko gauza da guretzat. Horretarako ere prestatzen hasiak gara, Gipuzkoako Ikastolen Federazioaren gidaritzapean. Irakaslea paper berri bat asumitzen eta mentalitatez aldatzen dihoa.

G.- Nola eragiten dizue Buesak diseinatutako Euskal Eskola Publikoaren legeak?

M.O.- Datorren maiatzerako Ikastola bakoitzak eta guztiok erabaki bat hartu behar dugu: Buesaren Eskola Publikoaren legea aukeratu (ikastolak eskola publiko bihurtuko lirateke, irakasleak funtzionari eta gaurko klaustroa mantenduko litzatekeela esaten da; inork ez du garantizatzen, trasladoak direla-eta, Buesak irakasle erdalduna ikastolan sartuko ez duenik: Araban gertatu da), ala eskola pribatuaren sarean integraturik gelditu (Buesak esaten du ikastolak pribatu bezala gelditzeak inolako "pribilejiorik" gabe geratzea suposatuko duela, batere dirulaguntzarik gabe; horrek kuotak ikaragarri igo beharra suposatuko liguke, ez gauden horretarako). Panorama honen aurrean, ez bat eta ez bestea ez zaigu gustatzen. Eskola Publikoaren legea ez, arrazoi askorengatik, euskalduntasuna ez duelako garantizatzen, autonomia hitzezkoa delako. Jakintzak, bokazioz, beti defenditu izan du eskola publikoa, baina ez egungoa, berri bat behar dugu. Eta Pribatuaren sarea ere ez dugu gustoko, dugun filosofiagatik eta horrek suposatuko lukeen arazo ekonomikoengatik.

Bi aukeraok nahi ez ditugunez, 3. irtenbide batean pentsatzen ari gara. Ikastolak beti joan dira korrontearen kontra, hainbeste urte zail iraun dute eta ez goaz hola-ta-hala gure proiektua hankaz gora botatzera. 4-5 urteko moratoria bat eskatzen dugu Ikastolok

globalki, egungo estatusa mantenduz, eskola publikoan integratu gabe. Beharbada, ordurako PSOE ez da egongo Jaurlaritzan eta posible izango da Herri honek behar duen Eskola berri hori eratzea eta legeetan kontenplaztea, gaur ez bezala. Orduan sartuko ginateke, baina orain Hezkuntza Sailburuaren legean sartzeak Ikastola ito eta hiltzea suposatuko luke. Gure guda hau ez dago galdua. Gure ametsa Euskal Eskola Publiko berri eta egoki bat sortzea da.

250 milioiko "zuloan" sarturik dago Jakintza

G.- Zer suposatzen dizue Kilometroak jaia Ordizian antolatzea?

M.O.- "Kilometroak 93" apostu handia da Ordiziako herriarentzat, baina gogor ekingo diogu. Gai honek oso dinamika positiboa sortu du Ikastolaren mugimendu inguruan, herriaren eta Goierri osoaren jaia izan dadila nahi dugu. Ekonomikoki saneatze bat suposatuko du, hori da gure helburua, ahalik eta etekin handiena ateratzea.

G.- "Euskaraz bizi" proiektua: zer da eta zer lortu nahi da?

M.O.- "Euskaraz bizi" proiektuaren



Manu Olano altzotarra, Jakintzako zuzendaria, ikasleekin.

helburua euskararen erabilpena areagotzea da. Eguneroko lanean somatzen dugun hutsunerik handienetako bat eta buru-hauste gehien ematen diguna, ikastoletan dagoen erdal kutsu ikaragarria. Gurean ez, baina zabarkeria inork uste ez duen mailaraino joan daiteke. Goierri eskualde euskalduna izango da, baina, urtetik urtera erdararen presen-

tzia nabarmenagoa umeen artean, atsedenetan eta kalean. Arazo larri honen aurrean zerbait egin beharra zegoela genion, behin eta berriz, baina formula majikorik ez. Inpotentzia. "Euskaraz bizi" proiektu astun bezain serioa martxan dago hortik zehar eta, ona dela ikusi eta gero, guk ere parte hartu nahi genuela erabaki genuen. 40 bat ikastoletara zabaldu da. Zertan den proiektua?: egoera iraultzea, baina era positibo, baikor eta egoki batean ikasleengan intziditzekotan. Honek, lan handiak emango dizkie gurasoei, ikasleei eta batez ere irakasleei. Motibazio handia suposatuko die. Atsedenean, esaterako, irakasleen sormenak giro batzu eragin eta joku batzu bideratuko ditu, haurrek euskaraz hitz egin dezaten. "Euskaraz bizi" ez da inongo proiektu soltea, urteetarako lanak emango ditu.

Jon Arano
Amaia Balerdi

93a: Ikastolaren piztuera?

Azken batean, Ikastolaren oinarriak euskara eta heziketa izango dira. Euskarari eusten ez badiogu jai dugula eta gisa horretakoak aipatzen ditugu Olanorekin, hitzaspertua bukatu ezinean. "Egia da euskara akademikoa asko aurreratu dela; konparatu besterik ez dago atzoko eta gaurko testu-liburuak; baina erabilpenarekin ez da gauza bera gertatzen. Umeak Ikastolara bidalita, bakarrik, ez da ziurtatzen euskararen iraupena umeen ahotan, egunak ordu asko ditu. Ikastolak bakarrik

ezin du eta apostu fuertea egin behar da". Denon gauza da egoera honi buelta ematea.

Garai bateko Ikastolen mugimendua eta kontzientzia piztuko ote den, erdararen uholdeak bere defentsak sortuko ote dizkigun euskaldunoi? Ikastolak izugarri handitu eta hobetu dira, baina beste lasaitasun-giro bat ere egon da urteetan. Erlajaziorako astirik ez dagoela orain, diosku Manuk. Denbora berriei buru-belarri heldu behar diotela eta hori positiboa dela. Ea aurtengo hau ona izaten den Jakintza Ikastolarentzat. Inportantea bai behinepein!



ELOSEGI-ARACO
Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • BEASAIN

XIXARE "LANGILEEN" ONGARRIA OLABERRIAKO FAKTORI BATEAN

Goierriko "Humus" bitxia

Martin Irazustabarrena, zaldibitarra, eta Jesus Mari Korta, beasaindarra, sozioek sortu zuten duela lau urte "Goierriko Humusa". Aitzindariak dira Gipuzkoa mailan. Merkaturatzen duten produktua


"Lomberri" a da, prozesu luze baten ondorioa. Egun eta urte osoz lan egiten duten milioika xixare kaliforniar dituzte. Bakoi-tzak eguneko gramu bat zimaurre sortzen du.

Orain arte ongari bezala ezagunak izan dira hemen ximaurre eta abonua kimikoak. Kasu honetan, berriz, xixareen multzo handietako hazkundera bilatzen da zimaurre, landare-ondarrak, depuradore-tako lokatzak jatena emanda, hortik ongarririk ekonomikoena, errentagarriena eta efikazena lortzen delarik.

Mundu guztiak daki abonua kimikoez egin den gehiegizko erabilkera txarra izan dela. Gaur egun, nekazaritzan erabiltzen diren terrenoak eskas dabilzate sustantzi organikoez. Hau horrela, aktibitate biokimikoa atzeratu egiten da, elementu elikagarrien eta estimulan-teen falta bat eraginez. Abonua kimikoez luzarora pobretu egiten dituzte lurrak eta erabilienak izan arren, produktu naturalak erabiltzea da zentzuzkoena, adituek diotenez. Lehengoari eustea.

Kaka jan eta kaka egin

Beste gauza asko ere esan daitezke narratzen humusaz, baina bere elaborazioaz arituko zaizkigu Beasainen bizi diren Martin eta Jesus Mari. Xixareok hermafroditak ditugu, hau da, bi se-



xuak dituzte beren baitan: arra eta emea. Edozein gauzaz elikatzen dira (lurraren sustantziak, intsektuak, e.a.) eta asteko 7tik 10ra arraultz jartzen ditu arrak zein emeak, beren erreprodukzioa ikaragarria izaki. Milaka edota milioka xixare izanez gero, gorotza tonaka egingo dutela begibistakoa da.

"Humusa produzitzeko ekimena Zaldibian sortu zen eta gero elkarte bat

osatu genuen prozesua industri-mailan aurrera eramateko. Goierriko Humusa, izeneko enpresa sortu genuen, biok", diote. Olaberrian montaturik daukate 1.500 m²ko azalerako pabilioi bat. "Lurraldeotako koneju, behi eta txerrien zimaurre eskuratzen dugu eta aste batzuz kanpoan utzi ondoren bere azidoak gutxitu egiten dira. Gero hasten gara xixareei jatena ematen, ez edozein gauza ere! Hauek eten-gabe irensten dute etengabe erregadiatzen dugun zimaurre".

Prozesu luze bezain bitxia

Depositu batean jartzen dira txixare kaliforniarrak eta beraien gainean 10 bat zm.ko zimaurre-geruza botatzen zaie, "jatena" alegia. "Astero botatzen zaie kapa berri bat, irentsi eta kaka-egiten dutela piskanaka azalera ateratzen joaten dira, arrazio berriak erreklamatu, eta horrela behin eta berriz, hari-rik eta 6-7 hilabetetara metro t'erdiko

Zer den xixare-humusa

Produkzioaren oinarria, xixarearen humusa, xixara beraren digestioaren ondorena da, hau da, digeriketarik sortutako ilun-koloreko sustantzi organikoen multzoa, oso baliagarria dena nekazaritza eta loragintza-lantegietarako.

**Humusak dakarren itzule-
ra: ongari kimikoetatik
naturaletara**

Humusa lurraren emankortasunaren oinarria da; honekin ez da esan nahi xixarearen humusa denik abonua mineralen sustitutua, abonua mineral hauen elementu eragingarria baizik. Humus honek lurraren bertute fisiko guztiak hobetzen ditu. Elikadura minerala eragin eta erregulatzen egiten du. Lurraren aktibitate biologikoa eta produkzio-ahalmena areagotzen ditu.

altuerako zimaurre-pila sortzen duten arte", diote Kortak eta Irazustabarrenak.

"Orduan beste plataforma batera eraman xixareak eta berriro hasten gara. Bitartean, humusa lehortzen jarri egun batzutan eta gero errotan txehtzen da, abonua krematzen lortzen delarik. Produktu erabat naturala, zeinarekin fruitu eta barazkien usain eta zapora naturalak berreskuratu daitezkeen".

Etekinak ateratzen hasiak

Goierriko Humusaren "Lomberriak" ez du konpetentziarik, bere erabilera garesti xamarra da oraindik, baina dena kultura kontua da, ze lurra fruituaren mesedetan datorrela begibistakoa da. Teknikoki urtero milioi bat kilo sortu ditzakete (sortzen den zimaurraren aldean oso gutxi), baina goraka joango den negozioa dela nabari da. Gipuzkoako loragintza osoa aselezkete.

"Xixare-mundu honetan, ikusita dago humus hau dela onena, eta orain gure asmoa da guztiau komertzialtzea. Adibidez, mahastientzako, loragintzarako eta abarretarako, abantailak baititu. Arabako mahastieta-
ra bidaltzen dugu ongarri kopuru gehien. Gure arazoa da, nahiz eta prest gauden eta haztegi haundia dugun, oraindik ez dugutela masiboki eskatzen, izan ere mahastiak gaitzak baitituzte. Xixareen produkzioa da gauza bat paperen gainean ondo ateratzen dena, baina gero ez dugu enplegatzen



produkzio guztia".

Milioi dextente inbertitu dituzte bi soziook industria honetan, baina fruituak ere hasiak dira jasotzen.


Mikel Aramendi
Koldo Zubeldia

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAUAK

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86



GOITAGI
OKINDEGIA

Etkezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA



LEIAR
KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretza - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24
BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 **BEASAIN**

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

19 LAGUN ORDIZIAN, GERRATIK IHESI, UDALAK EMANDAKO ETXEAN "Hemen oso pozik gaude, baina gure herria Bosnia da"

Hilabete asko daramatzate gerran murgilduta, gehiegi. Askok, txikienak bereziki, ez dute tiro, mortero eta bonba hotsa besterik ezagutzen. Tristura eta negarraren artean

jaio dira Bosnian bizi duten mundu beltzera. Gerra, anaien arteko borroka, etxeraino sartu zaie baimenik eskatu gabe. Batek baino gehiagok ez du bere aita ezagutuko.

Munduko estatu eta herri askotatik laguntza handia jasotzen ari dira bosniarrak; horien artean, Euskal Herriak. Elikagai, erropa edo zuloak estaltzeko plastikoa hara bidaltzea ez da mugatu laguntza hori. Euskadiko 7 herriak beste urrats bat eman dute. Horri esker, 140 bosniar Euskadin bizi dira abenduaren 7az geroztik. Milaka eta milaka dira gerraren ondorioak jasaten ari diren Bosniako gizon, emakume eta haurrak. 140 bakarrik bertatik aldegin eta hilabete batzuz itxaropen eta bake giroan bizi ahal izango dutenak. Bada zerbait, ordea.

Amurrio eta Gasteiz Araban, Mundaka Bizkaian eta Eskoriatza, Aretxabaleta, Legazpi eta Ordizia Gipuzkoan dira bosniarrak euskadira-tzearen ideia aurrera eraman duten herriak. "Kantillape" aldizkariak azken kasua jarraitu du hurbiletik: Ordizian.

Ahaztu (eta bizi) nahi

Hemeretzi lagun daude Ordizian, Udalak horretarako egokituriko "Apellaniz" etxean. Gizonezko bakarra dago. Gainontzekoak emakume eta haurrak dira. 7 hilabete ditu txikienak, 7 urte zaharrenak. Jendearen aldetik jasotzen ari diren elkartasunak erabat

ongi hartu gaitu hemen".

Ahalik eta bizimodurik normalena egitea da helburu nagusia, gainerako herritarren antzera bizi, alegia, beren herrialdean bizi duten egoera larria pixkanaka pixkanaka ahazten joateko. Ez da, ordea, lan erraza beraientzat. Ahal duten guztietan han utzitako se-

nideekin harremanetan jartzen dira, hori lortzea oso zaila gertatzen zaien arren. Oroimenean dituzte Bosnian igarotako une larriak, senitartekoen heriotzak, gurasorik gabe geratutako haurrak,... baina ez dute horretaz hitzegi nahi.

Momentu txar haiek ahazteraztea da, hain zuzen ere, Ordizian lanean ari diren 218 boluntarioen ahaleginetarikoa. Goierriko herri guztietako

jendea dabil etengabeko lanean, musutruk, bosniarrek behar duten guztia izan dezaten. Izan ere, gauza asko dago egiteko: janaria dohain lortu ahal izateko dendariekin hitzegi behar da, instituzio eta erakundeetatik diru la-



harriturik utzi ditu. Laguntza hori izugarri eskertzen dute. "Hemengo jendea gurekiko izaten ari den jarreraz txundituta gaude, oso oso pozik --diosku Faruk Pekez, Ordiziara etorri den gizonezko bakarrak--. Jendeak oso

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

guntza lortu behar da, erosketak egin behar dira, eta abar luze bat.

Egunak aurrera doazen heinean, ordea, gero eta hobekiago moldatzen dira elkarren artean zenbait gauza egiteko: garbiketak eta sukaldeko lanak den artean egiten dituzte. Familia handi bat bezala antolatu dira. Elkarrekin bizitzen ikasi dute.

Hizkuntza dute, zalantzarik gabe, euskaldunekiko harremanetarako oportorik handiena. Gehienek bertako hizkuntza bakarrik ezagutzen dute. Baina aparteko arazorik gabe ari dira moldatzen, **Natascha**, orain urte betez geroztik Donostian bizi den mediku kroaziarraren laguntzari esker. Bosniarren itzal bihurtu da Natascha. Beraiekin joaten da alde guztietara. Gainera, tarteka, **Meho Kodro**, Errealeko jokalaria eta honen anaiaren bisita izaten dute. Hauek ere lagungarri gertatzen zaizkie. Baina laster beren kabuz molda daitezen, gaztelania ikasten ari dira burubelarri. Egunero klaseetara joaten dira, hutsik egin gabe.



tugu gure artean. Gerra amaitu ezean, egonaldia luzatu egin daiteke, baina beraiek ez dute itxaropenik galdu. "Hemen oso pozik gaude --esan digu 28 urteko Zehra Obarcanin-ek-- baina gure herria Bosnia da. 6 hilabeteak pasatzera-ko Yugoslavia ohian gerra amaitzea amesten dugu".

Zehrak hau esaten digun bitartean, haurrak jola-

Puntua eta gantxilloa egiten artistak dira. Horretan ematen dituzte denbora libreko ordu gehienak. Denetik jaten omen dute, txerrikia izan ezik, eta ez

"Goierri guztiko jendea (218 boluntario) dabil etengabe musutruk, bosniarrek behar duten guztia izan dezaten".

dute alkoholik edaten.

Momentuz sei hilabetez izango di-

sean dabilta, Bosnian gertatzen denaz ohartu gabe. Beraiek gauza bat bakarrik dakite: aita falta dutela. Sarritan galdetzen omen dute aitaren berri. Etxean sartzen diren gizonezko guztiak beraien aita direla uste omen dute. Orain egun gutxi, argazkilari bat sartu eta mutiko batek, aita zuelakoan bere besoetara salto egin eta musuka hasi omen zitzaion. Txikienek ere hurbiletik bizi dute gerraren arrastoa, gerrak ez baitu bereizketarik egiten. Gerra itsua baita.

Ea 93garren honek tiro hotsak behin betirako isiltzen dituen.


Itsasondoko Kultur Taldea



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxe: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



NAGUSIA, 7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

Kirolak Sport

Ski modalitateetan
espezialitatutako denda

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta, 3



20200 BEASAIN

14 URTE ERREPIDEAN ETA AZKENEAN ZIKLOKROSSEAN GARAIPENAK

Jokin Mujika: "Azken urteotan ez dut aukerarik izan maila erakusteko"

Jubeniletan eta afizionatueta 5 urte eta profesionaletan 9 egin eta gero ere ez du utzi txirrindularitza Jokin Mujika itsasondorarak.

Goierriko kirolaririk ezagunenak Ordiziako "Granjan" eman digu elkarriketa mamitsua, besoa loturik eduki arren. Aupa Jokin!

Errepidekoa utzi ondoren, ziklo-krossera itzuli da txirrindua zintzilikatu gabe, Espainiako Txapelketa lortuz. Gaztetan Ordiziako Ziklo-kross Mundu Txapelketan (2. postua) erakutsi zuen trebezia berpiztu du azken hilabeteotan, beraz.

Errepidean lan paregabea egin du karrerista honek, talde onenetan parte hartuz, Orbea eta Banesto, besteak beste. Gazterik nabarmendu eta karrera meteorikoa izan zuen; profesio-naletan bere maila erakutsi du, ondo ibili zen. "Egon ziren beste txirrindulari batzu, Cabestany, Gaston, e.a. ni baino hobeto ari-tu zirenak, baina ni gustora ibili nintzen", diosku Mujikak, eza-gun zaion apaltasunez.

Galizako Biran, Zizurkilgo karreran, "Eibarreko Bizikletan" garaile, Ordiziakoan 3 aurrene kotan askotan, erregulartasuna izan da bere ezaugarrietako bat. "Beno, beti izan dut garai bat, uda-aldean destakatu dut gehien. Nire ustetan, Tourretik forma onean etortzen nintzelako, orduan hilabete on pare bat izaten nuen, karrerak irabaziz. Azkeneko urteetan Banestorekin ez nintzen Tourrera joan eta bali-teke horregatik forma galdu izana.

GOIERRITARRA.- Kontaiezazkiguzu Banestoko patrifi-liak.

JOKIN MUJIKA.- Aurreneko urtean nire ustez kanpaina polita egin nuen, etapak ez nituen irabazi, baina itxuran ibili nintzen. Gero hurrengo urtean ez nintzen hain ondo ibili. Gainera, banekien ez nuela jarraituko taldean eta orduan motibazio handirik ez nuen, beste talde batean sartzen saiatzea baizik ez. Egia esan, denontzat ez zegoen lekurik, betegarri gisa joaten ginen eta karreren erditan korritzen nuen.

G.- Orduantxe erabaki ote zen egun den talde garrantzitsua bihurtzea Banesto?

J.M.- Banesto beti izan da talde handia. Nirekin kontatzen zuten normalean Tourrerako-eta, nire lanengatik, alde horretatik zortea izan dut, fijo nengoen, batzutan gaizki ibili arren. Baina hone-lako talde batetan, ez baduzu erakusten zure balioa eta zuzendariak ez badu konfidantzarik zukan, bada jai duzu.

korrituz pasatu ondoren, gogorra egi-
ten zaidala gero errepedean aritzea.
Aurtengoan, errazagoa egin zait: zi-
klo-krosserako prestatu naiz bakarrik
eta ondo irten zait. Bi karrera polit ira-
bazi ditut, Gipuzkoako eta Espainiako
txapelketak. Maila ona izan dut, orain
gutxi Italian egon naiz Mundialean
zortetik izan ez badut ere. Prestaketa
eta ibili guzti horien ondoren, ez zait
atsegina errepedean pentsatzea.


G.- Hemengo faboritoena zinen Munduko Txapelketarako.

J.M.-Pena bat izan zen, ze azkene-
neko proba da eta ilusioekin joan
nintzen, zerbait egitera. Agian,
hemendikakoen artean forma
egokienean zegoena neu nintzen.
Baina gero proban bertan zer
gertatuko den jakitea zaila izaten
da. Joan ginenon artean, Izagirre
22. sartu zen, irteera txar bat egin
ondoren. Nire kasuan ez nuen
ezta korritu ere azkenean, eror-
keta zela medio. Garrantzitsuena
ilusioa izaten da, ordea.

G.- Nola dira kontuak ziklo-krossaren munduan?

J.M.- Nazioarte mailara, duela urte batzuk Estatuko txirrindulariak ia denbora pasa modura joaten ziren. Aurten ilusio gehiagorekin abiatu ginen Mundialera. Afizionatuek, Pla, Igartua e.a., paper ona egin zezaketen. Jubeniletan, bestalde, berdina pasa zen, mutilak nahiko onak

eta prestatuak dira. Baina gauzak ez ziren atera nahi ziren bezala. Profesionaletan, Izagirrek irteera txarra izan zuen eta besteengan ez zegoen itxaropenik Maila ona daukagu, baina mentalitatea falta zaigu. Batzutan, kontzentrazioetan jende akonplejatua ikusten dut nik. Azpiegitarian ez dago aitzakiarik, bitartekoak badaude. Asko ere ez da behar bizikletari dagokionez, tubularrik eta horrelakorik ez zaigu



Paternina ere desagertu zen eta beste taldeetara deika ibili nintzen, baina giroa zaila zegoen txirrindulari asko eta asko talderik gabe baitzeuden.

G.- Errepidean korritzetik utzi eta azkenean ziklo-krossera 30 urterekin...

J.M.- Honetan beti ibili naiz ondo, ez lehena, baina bai aurreko postuak. Egia esan inoiz ez dut utzi. Gertatzen da, orain programazioa egiterakoan, negua

falta. Agian pertsonalaren aldetik gaude eskasago (mediku-masajistak), baina teknika aldetik ez dago beharrik eta zu ondo prestaturik baldin bazoaz... Falta zaiguna da kanpora lehiatzera eta korritzera joatea. European, holandararak, belgiarrak eta frantsesak beraien artean ibiltzen dira gehiago, ezagutzen dira eta errespeto gehiago diote elkarri. Guk gure artean korritzen dugu bakarrik.

"Bakoitzak berea egin behar du ziklo-krossean"

G.- Errepideko "morrontza" bada ziklo-krossean ere?

J.M.- Ez, ez, egun bateko karrerak dira eta hemen bakoitzak berea egitea da gauza, taldeak lagundu dezake, baina normalean bakoitzak ahal duena; erdaraz esaten den "chupar rueda" ere ezin da egin, oztopoak baitaude. Bestalde, niri ez zait inporta besteentzat lan egitea, baina gustatzen zait baita ere ondo nagoenean nire gauzak egitea. Azken urteotan gertatu da ez dudala izan aukerarik maila hori azaltzeko, hobea goak baitzeuden. Errealista izan behar

gara, ikusten duzu beste batzu zu baino gehiago direla; horregatik ez duzu uzten saioak egitetik, noski.

G.- Gustora egoteko moduan eraldatutako ziklo-krosarekin eta egoera berriarekin, beraz.

J.M.- Bai, bai, afizioa badut atzetik, Goierri Lanbide Eskolako lanak ere uzten dizkit entrenatzeko orduak, andrea eta bi umeekin egoteko aukera ere badut. Beste batzuk, Plak, esate baterako, kilometro piloa egin behar dute lehiatzera joateko, niri ez litzaidake horrela gustatuko. Diru aldetik alde nabarmena dago errepidearekin, ezin da konparatu. Ziklo-krossa amateur da gehien. Puntan ibiltzen garenok diru pixka bat ateratzen dugu, baina gainontzekoek ez; batzuk dieta-alde ibiliko dira eta badaude baita igande-pasa joaten direnak ere. Guk soldata bat kobratzen dugu, baina hoberenak garenok bakarrik. Agian, altuxeago ibiliko dena Igartua izango da, Festinatik 4 milioi jaso dituelako. Aldaketak izan dira bai, zalerik badago, ziklo-krossa gustatzen da, baina, behar bada, falta da puntan ibiliko litzatekeen gizon bat, hari jarraitzeko. Gogoratzen naiz Bijandi eta biok nola mogitzen genuen jendea garai batean. Gero Yurrebaso eta beste egon dira, baina txirindulari ospetsu bat falta da. Gainera, modalitate hau

hemen korritzen da gehien, piska bat Galizia, Katalunia eta Balentzian.

G.- Zer eman dio ziklismoak Jokini, zenbat denboran eukiko zaitugu hor?

J.M.- Munduaren ezaguera eman dit, ireki egiten zara, kultura piska bat, denetik ikusi dut, gainera izan bada ere. Diru aldetik nahikoa ondo, bizitza aurreratzeko behintzat, finkatu egin naiz, nire adinean jendea hasi besterik ez denean egiten. Bestea, ez dakit noiz arte iraungo dudana. Baina errepidekoa da goeneko bukatu dut, nire adinarekin eta denbora bat korritu gabe egon ondoren zaila baita berriro dinamika horretan sartzea. Fisikoki ere ez da erraza behar den erritmoa lortzea; badaude kasuk (Zoetemelk, Marino), baina talderik ez baduzu, ahaztu egiten dira zutaz. Gustatuko litzaidake jarraitzea aurtengo egoerarekin, baina hurrengo urtean ez dakit nola izango naizen. Akaso beste 2-3 urte. Gero, gustatuko litzaidake mundu honekiko erlazioak mantentzea, baina ez dakit. Beno, beti mantenduko ditut, Mountain-Biken ere egin dezaket. Azken batean, harra eta lehia barruan daramazu.

J.M. Arano

J.M. Munduate

Bi lerrotan


❑GOIERRITARRAK abenduan eta primizian aurreratu zuen bezala, Everestera doa arabar espedizioarekin Ramon Agirre "Marron" ataundarra. Goierriko "ero" honek parapentzez jauzi egiteko asmoak ditu munduko gailurretik. Hegaldia filmatzekotan da bideo-kamara berezi batekin.

❑"Goierriko Bola Txapelketa"-ren 3. saioan Luis Aizpeolea zeraindarra izan zen irabazle, 8 bolatan 48 birla bota zituelarik. Aurrera doan Txapelketa honek 6 saio izango ditu. Sailkapen nagusia Patxi Lazkano da buru, 2. Nikolas Osaba.

❑15 urtetako Leire Olaberria ikaztegi-tarrak Gipuzkoako atletismoko promesa berria bilakatu da, 60 metro-tako errekor berria jartzean. Hau dela eta espainiako federazioaren beka bat lortu du.

❑Atletismoan maila onean finkatuta

dagoen Amaia Andres beasaindarrak arrakasta izan zuen Parisen. Sei Nazioetako Txapelketan bigarren postua lortu zuen 2.06.07ko denboarekin 800



metrotako frogan. Urteko markarik honena lortu arren ez zuen Torontoko mundialera joan ahal izateko gutxienekoa lortu. Hurrengoan izan bedi.

❑BKL-ko jubenilen bigarren mailakoak Gipuzkoako txapela lortu dute eskubaloian. Taldeko Antonio Martin gaztea goleatzaile nagusi izan da 109 golekin.

❑Iker Perez ordiziarrek marka bikainak lortu zituen Parisen ospatutako Munduko Kopan. Espainiako "A" selekzioarekin jaoanda, 100 metro libreetan 52.56 egin zuen, berrehunetan berriz 1.54.97.

❑Zaldibiko Pilota Eskolaren txapelketan larru-paletako garaile Etxarri-Zabaleta izan ziren Aierbe-Sarriegiri 35-29 irabaztean, pala motzean berriz Garrido-Olano, Zeberio-Jauregiri 40-35 irabaziz. Pelota partidu bikainak ikusteko era hau ez zuen jende askok aprobetxatu.



orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIHERRI BIHOTZEAN
GIPUZKOAKO
KONTSUMITZAILE
GUZTIEN ZERBITZUAN**



A U K E R A

HIPERMERCADO




OLABERRIA

N A G U S I A



Joxan Ormazabal zegamarr, euskalumeen ezaguna

Zegaman jaio zen Joxantonio Ormazabal, 1948. urtean. Beasaingo Elkartasuna Lizeoan aritu zen lanean zenbait urtez eta hantxe konturatu zen erraztasun handiz asmatzen zituela ipuinak haurrentzat. Izan ere, nahiko gertutik ezagutzen du haurren mundua. Orduan egin zituen gero hain ezagun bihurtu diren "Astoa ikusi nuen" izeneko bertsoak. "Elkar" argitaletxean lan egiten du haur literatura sailean. "Sor", "Itzul" eta "Perkax" sailen bultzatzaileetako bat izan da. Itzulpenetan, "Kextxusen Zooa", "Jolas egiteko ipuinak", "Norena da basoa?", e.a. ditu argitaraturik. Ipuingintzan ere egin du zenbait lan; hauek dira egile honen lumatik jaiotako lanak: "Margolin", "Kotti", "Patxibusa", "Kittano", "Zipristin 2". Askiz ezaguna da berak euskara batura egokitutako "Pernando Amezketarra" ere. Nahiz eta ofizioz baino gehiago afizioz idatzi, ezagunak dira bere liburuak Euskal Herriko umeen artean.



J.F. Auzmendi, ETBko aurkezle eta bikoizlea

Ipurterretzat eta nerbiosotzat du bere burua Joxe Felipe Auzmendik. Leku berean denbora luzez egotea zaila gertatzen zaio, gauza berrietan sartzea askoz ere nahiago du. Euskal Telebistako prentsa-bulegoko Ana Sofia Eskisabel lazkaotarrak adierazi digunez, bertako aurkezle eta bikoizle aktore izateaz gainera, abokatugai ere bada beasaindarra.

Lan girotik ihesi, astean bizpahiru aldiz kirolari eusten dio, "bestela agobiatu egiten naiz" aitortzen du; baina badu beste ihesbide bat ere, artean aurkitzen duena alegia, Oteizaren jarraitzaile honek aipatzen digunez.

Halabeharrez Bilbon astegunetan bizitzea suertatu zaio eta bertako girora oso ondo moldatzen ez denez, abiada bizian ostiral gauero Beasaingo bidea hartzen duela kontatzen digu. ETBrako aurkezpenaz gainera, iazko San Ferminetako Txupinazoa eta Zinemaldiaren estrenua besteak beste, komentatu

ditu zuzenean. Bere abotsa ordea, askoz gehiago landu du bikoizketan, lan horretan ia hamar urtez ari bait da.

Aurkezpenetan bere burua ikustea ez zaio gustatzen, "bikoizketan hasieran ere horixe gertatzen zitzaidan". Telebistarako egin dituen lan ezberdinetan ere batetik bestera abantaila eta desabantailak bilatzen ditu, "bikoizketa askoz ere perfektionistagoa da, zerbait gaizki irteten bada errepikatzeak aukera daukagu. Komentario lanetan zuzenean aritzean nerbioek gehiago astintzen naute; gaia menderatzea eskatzen du". Azken finean, "burua horretara jartzea" dela guztia uste du Joxe Felipek.

Beasaindar hau kirolzale amorratua dugu, squash-ean jokatzen duela adierazten du. Baina bere zaletasunik handiena, artea da. Arte munduan obrak erosiz edo artista artean egotea biziki atsegin du: "arte munduan oraindik jende 'autentiko' rik aurkitu daitekeela uste dut", dio bere burua Oteizaren jarraitzaile itsu-itsutzat aitortzen duen honek, "bere obra eta munduaren ikuspegia miresten ditut".

Oraindik Zuzenbide ikasketetan dihardu. "Ekainean bi gai prestatzen aritu nintzen azterketetara aurkezteko" dio, baina, programa aurkeztzen jartzean irailerako utzi behar izan nituen gaiak". Irakasleekin hitzegiten ere saiatu omen zen, baina "famak nonbait ez du balio horretarako" adierazten du etsita.

Iazko udan zehar "Bila dabilena" aurkeztzen ikusi dugun beasaindarrak berehala ekin dio kamara aurreko lanari. Lehiaketa berria estreinatu zuen duela zenbait aste, "Gezurra nagusi" saioan ikusi ahal izaten dugu, hain zuzen ere astelehen iluntzero.



**itxondo
roztegia, C.B.**

ATAUN S. MARTINGo
BARANDIARAN Anaiak

Lantegiaren helbidea:
ZUBIERREKA Auzoa, z/g.
20210 LAZKAO - Gipuzkoa
Lantegiko Tfnoa.: 16 09 31

✱ **Karta Zerbitzua**
✱ **Lan menuak**

**RUBIORENA
JATETXEA**

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN

Goierriko herrietatik dator literatur notizia


BERANDU samar bada ere, Durangoko Azokarako argitaratu ziren liburuak irakurri ondoren, hona hemen aipamen eta erreseina labur bat. Hala ere, esan beharra dago orain aipatuko ditugunak ez direla edozein liburu, goierritarrok idatzi edo itzulitakoak baizik.

Gure produkzioari gainbegiratu bat emanaz gero, zazpi bat liburu nabarmendu ditzakegu, eta zazpi horiek hiru ataletan banatu: haur eta gazte literatura, itzulpena eta saiakera edo entseia.

Zegamatik Ordiziaraino
doan trena: gazteentzako literatura



Tren hau "Euskaldunon Egunkariaren" tren tiki haren modukoa da, batez ere gazte jendearentzat. Eta Zegamako geltokian Joxantonio Ormazabalen "Saturna" (Elkar) ageri zaigu. Aspal-ditik irrikatzen genuen Ormazabal zegamarraren obra berri bat, eta hona hemen, bere ohizko modu atseginean, katutxo baten abenturen bilduma.



Beasainen geldialdi bat eginez, Xabier Mendiguren Elizegiren "Patakon" nobela laburra aipatuko dugu. Egia da Patakon hau ez dela Goierriko pirata bat, baina garbi dago bidelapur eta pirata bizkaitar honen gorabeherak gazetxoen (eta ez hain gazetxoen) gogobetekoak gertatuko direla. Nobela arina da, kantaz eta pasadizoz betea, eta idazkerari begira, ezagun da euskalki gehientsuenen bateratze lan handia egin duela.



Ordiziara iritsita, bertan bizi den Joxemari Iturralde tolosarraren "Bederatzi gutun t'erdia" (Erein) aipatu beharrean gaude. Liburu hau ez da bere aurrekoak bezain arina; pausatuagoa da, motelagoa, baina hala eta guztiz ere gustora irakurtzen dira ohean gaixo dagoen gaztearen gogoeta eta hausnaraketak (askotan literarioak).

Barruko kezka, jolasak eta heriotza: itzulpenak

Atal honetan bi itzulpen nabarmendu behar ditugu, zein baino zein hobea. Alde batetik, Xabier Mendiguren Bereziartua ezkiotarraren "Matxura" (Erein) dugu, eta Drrenmatten ipuin hau berriro ere irakurtzean, benetan zoragarria egin zaigu. Bestalde, Joxemari Mendizabalen "Roke Txikia" (Erein) agertzen zaigu. Ipuin honek pil-pilean dagoen gai bat dakarkigu: haurren desagerpena eta hilketa. Eta honetan ere "Bizargorri"ren itzulpenak txora-txora eginda utzi gaitu; gai ilun samarra izatea.

Euskaldunak, espainolak eta itzulpenak: saiakera

Atzera ere Zegamara joz, Joxe Azurmendik aspalditxotik gordeta zeukan lan mardul bat ezagutu dugu: "Espainolak eta Euskaldunak" (Elkar), eta liburu hau dagoeneko hasita dago direnak eta ez direnak astintzen. Gaia oso interesgarria da eta emaitza denon begi bistan dago: oso denbora gutxian hiru argitalpen.

Eta errepikapenekin jarraituz, aipa dezagun berriro ere Xabier Mendiguren Bereziartu, honek ere gutxienez Azurmendiren lanaren adinako lan bat



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
L
PERMISO GUZTIAK!

Estatuko eta nazioarteko bidaiari eta merkantzia garraio-lariei zuzendutako ikastaroa martxan Martxoan

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA

SUKALDE ETA BAINUKO HALTZARIAK
ELEKTROTRESNAK - TV - HI FI



OYARBIDE

IGARTZA-ETXEA,2
Tlf:88 26 21 - 88 15 96
Fax: 88 77 85
BEASAIN

OLABERRIA MERKATAL Z.
Tlf:16 16 00
Fax: 16 16 02
OLABERRIA

plazaratu baitu: "Itzulpengintza". Azterketa trinkoa da honakoa, itzultzaile jendeak behar-beharrezkoa izango duena.

Letra asko, beraz, Goierri aldetik euskal literaturari eskaini dizkiogunak. Aurrerantzean ere horrela jarraituko ahal dugu!.

Patxi Zubizarreta



"Espainolak eta euskaldunak", Joxe Azurmendi, Elkar, 585 or., 1900 pzt.

Liburu hau ez da beste bat, beste asko bezalakoa. Joxe Azurmendiren saiakera guztiek pizten dute interesa eta jakinmina irakurleen artean, baina "Espainolak eta euskaldunak" bereziki garrantzitsua delakoan gaude, apartekoa. Ez bere neurriagatik soilik, hori ere azpimarratzekoa izan arren. Edukia du mamitsua, berebizikoa. Espainolen eta euskaldunen mitologia eta ideologia linguistikoen historiak osatzen du obraren muina, ernazimentuan oinarrituz batez ere, nazio askotako eta garai guztietako materialak biltzen baditu ere.

Kanpotik batek pentsa lezake hori historiazale eta filologoentzako lan berezitua dela; ez horregatik. Azurmendiren erudizio erraldoiak eta iturrien zabalak obrari zientifikotasun osoa ematen badiote ere, bere meritu berezkoena, originaltasunik behinena, Euskal Herriaren izateaz egiten duen go-goetan dago, euskaldunen bizi nahi eta ezinaz jarduteko moduan. Luma zorrotz eta dantzariz. Dialektikaz eta polemikaz. Pentsamendu eta sentimenduak uztartuz.

Esan beharrekoa da, liburuaren proiektua eta lehen idazketa 1976an burutu zela, beroaldi batean, eta hala ere gaurkotasun izugarria duela, gure arazo eta zauriak zahar-berriak diren seinale; orduan argitara ezinda, ekarpen eta hausnarketa gehiagoz horniturik eskaintzen digute gaur. Gure lehena, orainari eta horiekin batera geroari begi berriekin begiratzeko gonbidapena egiten digu Azurmendik, topiko oker franko uxatzen ditu, eta hutsik egiteko beldurrik gabe esan dezakegu, "Espainolak eta euskaldunak" irakurtzen duena ez dela axolagabe geldituko, ezinbesteko erreferentzia bihurtuko bait da gai hauetaz kezkatutako edonorentzat.

"Gutun harrigarri bat". Patxi Zubizarreta. Elkar. 53 orr.

Liburu honetan bost ipuin daude, baina, egun-egungo gaia ikutzen dute, zeharka bederen: bi herrien arteko harremanak. Eta bi herri horien bidez, bi kulturen artekoa. Xenofobia hain pilpilean dagoen une honetan, horrelako ipuinak idaztea atrebentzia osasungarria da.

Bi protagonista nagusi daude: Reda mutiko marokkoarra eta neskatxa eus-



kalduna. Elkarri opari bana egiten diote: Reda ipuin bat daraman gutun harrigarri bat igorri dio neskatxari, eta ordainetan, "Egia eta Gezurra" ipuina jasoko du. Askotan bi herriek elkar ulertzeko zubiak eraiki behar dira, eta "paisa" batek egiten du lan hori, itzultzailearena alegia, gutuna arabieraz baitago. Reda idatzi duen ipuina Fez-en kokatzen da, baina badu euskal ordainik. Euskarazko ipuinean okina ez baina ikazkina azaltzen da. Eta Euskal Heritik abiatzen den ipuinean hemengo mitologian maiz azaltzen diren elementuak ageri dira: sorginak eta akelarreak. Herriek elkarren berri izaten dute, eta albisteak, ipuinak, opariak... hemendik hara eta handik hona dabilta enarak eta zikoinak bezala. Animalia hauek bi herrietan bizi dira, bi herriak behar dituzte bizitzeko: Afrika eta Europa.

Liburua Perkax sailean dago. Ondorioz, hizkera erraza erabiltzen du P. Zubizarretak. Nere uste apalean, badaki Zubizarretak hizkera gehiago lantzen, gehiegi zaildu gabe lantzen alegia, biziago egiten. Alde horretatik, piskat hanka-motz dago liburua.

Jon Zabalegi



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77/88 17 93 - 20240 ORDIZIA

Kalitatezko elikadura, osasunaren oinarria

***Baserritar: egin erakargarri zure produktua.**

***Erosle: bertako produktuan dago zure aukera.**



NEKAZALTURISMOA

VILLAFRANKA-RI

Festak bukatzerakuan uzten degu Villafranka iruditzen zaigula, burni bidearen goiko aldean anka punttetan dagoela, jendeak obeto bere arpegi alai-churiya ikusi dezan. Erri soñu aundikoa, seme argidortarretan famatuba eta bere chikita-sunian, probintzi guzian, menturaz berdiñik gabea.

Erri au albistatzian, laister ezagutu liteke, bere biztanlearen izate edo bizimodua. Emen ta an, alde guzietan, eche bakoitzean, ikusten dira denda mota askotakoak, chukun eta apañak; eta aĩn aundiya da jendearen egokitasuna tratue-tarako, non, esan leiken, amaren sabelian eran dutela grĩña ori. Ezta iñor eramango dionik bertako umeai bere izkuntza legun eta eztizkoan, bere alaitasun eta saltzeko moduan. Makurrak dira!... Denda batian sartzen danak, lanik aski izango du ateratzen zerbait erosi gabe; ainbesterañokoa da tratubetarako daukaten graziya. Orregatik geienak dirade izlari bikaiñak, eta jendearen-kikoa iñork baño obeki eramaten dakitenak.

Beĩn Villafranka-tar bat ezagutu duenak, naiz ta munduaren azken-azkeneko chokuan arkituko balu, antz emango lioke nungua dan; eta, alde guzietan bezela, gai onetan gizonai aurea artzen diote emakumeak: bildur izatekoa da beren erasoa.

Onetaz gañera, eziñ genezake isildu Villafranka-tarren arreta gure aurrekoen oiturak gordetzeko. Orain izandu diran euskal-festen azkenik ederrena izango da aurrera ere orla irautea.


"Euskal-Erria" LI liburukia -1914ko 2. seilabetealdia-, 276. orritik Bittor Hidalgok jasoa)

Jose Mari Iparragirre

Trobalaria, ko-blakaria, poeta kantautorea, arlote erromantikoa, Euskal Herriko Mussorgsky-a, jazarria eta zigortua sentitzen da bere sortzapeneko kant-uaz, Gernikako Haritz gurtuari eskainiriko himnoaz, herikideak asalda-tzeagatik.

1859an Hegoa-merikara joatea erabakitzen du Anjela Kerexeta bere emaztegaiarekin batera. Berehala, Mercedesen (Uruguay-en) finkatuko dute beren egoitza, bertan izango dutelarik zortzi seme-alaben jaiolekua.

Herriminak zulatzen zuen Jose Mariren bihotza, bere artzain bakardadean melodiak konposatu zituelarik, amodioz-koak, bakikoak, abertzaleak. 19 urtetako borondatezko exilioaldiaren ondoren, koblakaria bere sorterri Goierri-ira itzultzen da eta bertan paseatu zuen bere zahartzaro goiztiarra. Ezkio-Itxason hil zen.



Erakusketa

ZUMALAKARREGI MUSEOAK ANTOLATUA ORMAIZTEGIN ETA DONOSTIAN

"Gipuzkoa 1840-1872": berrikuntzak eta eztabaidak

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak titulu honetako erakusketa bana paratu zuen iazko urtearen hondarrean Ormaiztegin eta urte honen haseran Donostiako San Telmon. Balantzea egiteko garaia da.

Ormaiztegiko Museokoek nahikoa lan izan dute erakusketa honekin, Mikel Alberdi zuzendariak dioskunez: montatu, desmontatu... "Balantze modura oso gustora geratu gara jendearen erantzunarekin, 600 bat pertsona pasa da; urte-garai horretan, aurreko urteen aldean, hirukoiztu egin da bisitari kopurua. Oso polita geratu zen gainera". Festetan ireki zuten Ormaiztegiko erakusketa eta bertako jendea izan zuten. Donostiakoak ere erantzun ona jaso du.

Bi Karlistaden arteko epea, hau da, 1840-72koa, ez da azterketa askoren gaia izan. Ez bi gerren arteko parentesia izateagatik. Liberalismoa eta gure gaurko bizimoduaren oinarriak orduan

ezarri ziren. Neurri haundi batean, urte haiek erabaki zuten gure oraina, eta ez zalantza eta protestarik gabe, gainera.

Mikel Alberdiren esanetan, garaiko Gipuzkoak nozitu zituen hainbat berrikuntza aztertzea izan da asmoa. "Industriaren hastapenen gaia ez da gehiegi aipatu, "Tolosako papeleren kasua aipatzen dugu; gero, inprimategiaren eragina, pieza printzipal bat eta garrantzitsua denez, horren ingurukoak; bai trenbidearen inguruan sortzen diren polemikak eta bai Donostian, adibidez, Bulebarrarekin sortu zena (foiletoak eta foiletoak atera ziren batak besteen kontra), inprentaren bitartez eginak ziren eta horrekin lotu dugu piska bat".

1839ko Bergarako Hitzarmenaz geroztik Foruak Konstituzioarekin egokitu behar ziren. Baina nola, noraino? Aldaketa nagusienetako bat Aduanak Bidasoara eramatea izan zen. Honen euskaldunon harremak eraldatu zi-

tuen. Tolosako kapitalidadearekin, trenbideen kontukin, bazen polemikarik lehengo mendeen.

Trenbidea izan zen, ezbairik gabe, mundu berriaren adierazle garbia, bai ekonomia zein gizarte eta ideologia mailan ere. Trenek eguneroko gauza bihurtu zuten merkantzia eta pertsonen joan etorriak. Zer nolako Gipuzkoa litzateke Madril-Parise trenbide nagusitik kanpo geratu balitz?

Erabaki bat hartzeak beste aukerak baztertzea zekarren eta adibide gisa, dena zegoen elkarloturik: inprenta, bertso-paperak, komunikazioak... Polemiken mende horretako, kontrakoa dioenik izan arren, aurkitu diren bertso-paper gehienak aurrerakuntza eta trenen aldekoak direla dio Alberdik.

Ezezagun dugun gure Historiari buruzko galdera batzuk erantzuna ere izan dutelakoan gaude.

J.A.

Olaberrian berria... Etxezuri Sagardotegia

Bataz beste 28 bat buru zeuzkaten Olaberriako Etxezuri baserrian, baina baserri asuntua gaizki dago Eropatik datozen legeak direla eta, eta behiak kendu eta animatu egin ziren sagardotegi bat montatzera.

Nahiz eta askok hiltzean ireki berri den "Lazkaoko txuleta lekua" esan honi, Olaberriako Errekalde auzoan dago Etxezuri, Lazkaoko sarreran. Familiko negozio bezala eratu dute Felix Garmendia eta Teresita Asurabarrenak, seme alaben laguntzaz: Nekane, Garbiñe, Nere, Jokin eta emaztea.

Lehen ere izan zen sagardotegia Olaberrian, tolaera ere bazuten Etxezurin, baina honelakorik ez zen: portxe dotorea zeharkatuz, sukalde berria puska erantsitu batean, kafetegitxo bat eta txukun jarritako jangela zabala daukazu, 110 bat lagunentzako eserialdiko.

Ez dira igoalak garai bateko sagardotegiak eta gaurkoak: "Gaurko Sanidadeak kondizioak betetzea eskatzen du berria irekitzekotan, autorizazio guz-



tiak behar dira", diosku etxeoandreak bakailua xehetzen duen bitartean. Izan ere, beraiek jartzen dituzte jan eta edan beharreko guztiak: bakailu tortilak eta takoak, saiheksak eta txuletak. Etxean eginiko sagardoa gehienbat: sagastiak dituzten seinale. (Lehen soroak zera biltzaten terrenoetan sagarrondo gazteak aldatzen ari dira gainera).

Postretan gazta (Ordizia Gaztandegikotik darabilte) menbriluarekin eta intxaurrak. Ogia auzoko Ertziltxo baserrikoa. Txuletak bistan egiten dira portxean; bertan mahai batzu jarri nahi

dituzte udaberri aldean eta, oraingoz ez, baina gero urte osorako irekita egon behar duenez, sagardo denboraldia pasatukoan beste jenerorik sartu beharko dute. Etxeko baratzetakoak, adibidez. Bertako produktua beraz, emakumeon mimo guztiarekin prestatuak.

Altzairu herdoilezinezko 4 sagardo-kupelez gain, Arabako Lapueblako ardo gorri eta beltzaren barrika bana dute. Jendearen harrera polita

izan du. "Lana ondo egiten hasi gara, ez dago keizterik. Ematen du jendea nahiko gustora ateratzen dela". Otordu baten prezioari dagokionez, 2.000 pzta. inguruan aterako zaizu, ondo janda. Kafeak eta kopak mahaira ateratzen dituzte etxezuritarrek gainera, larunbatetan hori posible ez bada ere, jendea zai egoten baita kola eginez.

Lehen ikuiluak ziren lekuan trikitixa eta euskal giroa aurkituko duzu. Zerbait enkargatu nahi baduzu, badakizu nora jo: 882049 telefonora dei.



S. A.

liburudenda

LIBURUAK
JOSTAILU DIDAKTIKOAK
ESKOLA - MATERIALA
BULEGO - MATERIALA

elosegi, 16 - ☎ 943 - 886500
20210 lazkao - gipuzkoa

Bodegon ARRIZAR

kaxuelitak + ogitartekoak + oilaskoak

Zaldizurreta 7 BEASAIN Tel: 88 98 44




JAKINTZA IKASTOLA

Kalitatezko Euskal Eskola

Altamira auzoa. 160540 tfnoa.

Garagartza 4. 881213 tfnoa.



-
-
-
-
-
-
-

kutxa fundazioa
fundación kutxa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza
obra social de la caja gipuzkoa san sebastián

-